


ITSASU ITXASSOU

7

HERRI ALDIZKARIA **URRIA 2022 OCTOBRE** BULLETIN MUNICIPAL



Balaki gure euskal herriaren nortasunean murgiltzen da berpizteko luze zabalean bizi zozialaren arnagune berri. Pilota erdian ardatz. Gibelean ezkalada pareta. Sahetsean, hainbat ekimen toki. Aintzinean itzal eta aterpe, elkarguneko ostatuaren deia.

Balaki s'immerge dans notre identité de territoire basque pour resurgir tel le poumon d'une vie sociale régénérée. En cœur de projet la pelote. A l'arrière le mur d'escalade. Sur le coté une mine d'activités sociales. Et en façade, l'invitation à venir partager un moment sur l'espace bar restauration.

ÉDITO

Auzapezaren hitza



Osasun krisia urrundu dela iduri luke. Ahantziko dira menturaz laster maskak, ibilaldi mugatuak eta elgarretaraztea debekatzen zuten neurriak. Musu trukatzeko eta eskua sendoki tinkatuz agurtzeko ez liratezke gehiago kutsakor, berriz bihurtuko litezke lagun elkartzaren atsegin eta gozamen iturri.

Zerugainak euri xortarik gabe, erretzeko iguzkiak, beroaldi sapa itogarriek, beste errealitate gordin batzuek oroitarazi dauzkigute. Aldaketa klimatikoak harrapatzen gaitu bere bolta zoroekin Atlantiko itsas bazter hautaraino. 2022ko ekainean, sute handiek kixkailiak zituzten Nafarroan Etxauribarreko eremu asko. Eta uda garaian, Landesetan ikusi dira erretzen milaka hektarea oihan. Gure herriko mendi mazela batzuetan, uda erdikotz ageri ziren zenbait zuhaitz sendoen hostotza osoak eihartzen. Erreketako urak, asko iturritako urak bezala, apal apal jautsi dira. Laborari eta kabala hazleek alhagi gorriak ikusi dituzte eta negu beltzaren beldurra dute. Gure egun guzietako eginmolde frango, gure bizimoldeak berak, nahitaez inarosten dituzte klimaren nahasmendu guzi horiek, gure herrien eskutik ainitz haratago.

Hilabete azkenerat heltzeko diru nekeak, etxetik ateratzeko uzkur ala ezinak, bizitegi duin baten ardiesteko buruhaustek, herritar andana bat hunkitzen duke jakin gabeen. Herriko hautetsiek badute hortan beren ardura, herritar guzietatik baduten bezala adi eta eskuzabal egon beharra.

Udazkeneko herri aldirak hunek nahi ditu bere orrialdeak zabaltzeko herriko elkarteak. Hauetarik batzuek badira beti prest beren berri emaitzeko. Beste asko aldiz uzkurrago beren aktibitate eta ekintzen oihartzunak zabaltzeko, hain animazio lan baliosa eramaiten dutelarik herritarrei buruz, eta gehienetan indar guziaz ezartzen dutelarik beren gertakariak apailatzen eta obratzen. Intramuros aplikapena ere hor daukate beren lanaren oihartzuna herri guzian zabaltzeko, ekitaldien argazkiak batzuek idatzizko bi lerroren igortzeko arta hartuz geroz.

Dena den, txaloak Itsasuko elkarte guzi horiei, harro baita herri hau bere herritarrei elkarteek eskaintzen dituzten ekitaldi guzietaz. Harro da baita ere gure herrian hainbeste bolondres ikusteaz elkarte biziak arduratzen eta kultur ala kirol ekitaldien antolatzen. Zuek zirezte Itsasuko elkarbizitzaren bihotza.

Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Ixassou
05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr
Site : www.itxassou.fr

Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea
Impression sur papier recyclé : Imprimerie Arizmendi

La crise sanitaire du Covid semble s'être éloigné depuis quelques mois. Les masques, les restrictions de déplacement et les contraintes aux rassemblements retourneront sans doute aux oubliettes. Les claquements des bises et les cordiales poignées de main ne seraient plus des pratiques à risque de contamination, pour devenir à nouveau l'expression du bonheur de la rencontre.

Le ciel sans pluie, le soleil brûlant, les chaleurs étouffantes nous ont rappelé d'autres réalités. Le changement climatique manifeste ses caprices jusque dans nos contrées océaniques. Dès le début juin 2022, les incendies de forêt avaient emporté des surfaces importantes sur la vallée d'Etxauri en Navarre. Et sur les mois d'été, la forêt landaise a vu disparaître des milliers d'hectares de bois. Sur certains versants de nos montagnes, des arbres d'essence locale ont parfois vu leur feuillage dessécher pour le milieu de l'été. Les niveaux d'eaux de nos rivières et de nos sources ont été au plus bas. Notre agriculture et notre élevage subissent la violence de ces évolutions. Nos pratiques quotidiennes de citoyens et nos modes de vies à tous et toutes seront forcément bousculés par ces phénomènes de dérèglement climatique bien au-delà de l'échelon communal.

Les difficultés à boucler les fins de mois, à pouvoir sortir de chez soi ou tout simplement à bénéficier d'un logement décent concernent certainement de nombreux et discrets itsasuar. Ce sont des réalités qui interpellent les élus locaux mais qui en appellent aussi à la vigilance et à la solidarité de toute notre population.

Ce numéro d'automne du bulletin municipal a voulu largement ouvrir ses pages aux associations du village. Certaines sont promptes à renvoyer leurs contributions. D'autres plus nombreuses et si influentes dans l'animation du village, concentrent le maximum d'efforts dans la préparation et la réalisation de leur objet, et mériteraient que leur travail gagne en visibilité auprès de tous nos habitants. L'application Intramuros est aussi là pour donner de l'écho à la vie associative. Il suffit d'adopter le réflexe de renvoyer des images et trois lignes de commentaires, pour que des centaines d'habitants partagent l'événement.

Encore bravo à toutes ces associations d'Ixassou qui font que ce village brille par l'offre d'événements organisés pour les itsasuar, comme par le nombre de bénévoles qui s'impliquent au bon fonctionnement des structures associatives et des activités sportives ou culturelles. Vous êtes le moteur de la vie sociale de notre village.



INTRAMUROS

Les nouvelles et événements d'Itsasu peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable. <https://appli-intramuros.fr/>

Aujourd'hui, environ 800 personnes (Itsasuar et extérieur) sont abonnées aux notifications d'Itsasu.

800 pertsona Itsasuko berrieri arpidetuak dira intramuros-i konektaturik. Haiek bezala, telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.

AURKIBIDEA / SOMMAIRE

BERRIAK / ACTUALITES

Euskara : Euskaraldia	4
Balaki : euskal herriko etxean itxuraz jauntzirik / Balaki en mode néo basque voulu et assumé	5

HIRIGINTZA / URBANISME

PLU : Laster inkesta publikoaren garaia / Bientôt le temps de l'enquête publique	6
Nor biziko da hemen etorkizunean ? / Qui habitera ici dans l'avenir ?	7

BERRIAK : BIDEAK / ACTUALITES : CIRCULATION

Solasak, eztabaidak, hobekuntzak, ebaluaketa denboraldi bat / Echanges, réactions, ajustements, un temps d'évaluation	8-9
Oinezkoen segurtasuna eta mogikortasun ezia / Sécurité des piétons et mobilités douces	10

INGURUMENA / ENVIRONNEMENT

Hondakin-bilketaren erreformaz / Réforme de la collecte des déchets	11
---	----

BERRIAK / ACTUALITES

Elizan aire gaixtoa / Coup de foudre sur l'église du village	12
Apez aldaketa San Mixel parrobian / Changement du curé de la paroisse Saint Michel Garicoitz	12
Ataitzetako barranda / La balustrade du Pas de Roland	13
Pas de Roland...ou l'histoire d'un mythe / Errolan-en egiak eta alegiak	13

LABORANTZA / AGRICULTURE

Kabalak eta aziendak mendian / Les animaux en estive	14
Biperreko langile sasoiariak / Travailleurs saisonniers du piment	14
Suterik gertatzen balitz hurbiltzeko / Pouvoir intervenir en cas d'incendie	15
Mendiaren erabiltzaile guzien arteko harremanak / Cohabitation et bonnes pratiques en montagne	15

ELKARTE BIZIA - VIE ASSOCIATIVE

Elkarteen aurkezpenak / La parole aux associations	16-27
Biperreko langile / Travailleur saisonnier du piment : Benat Hernaniarra	17

HEZKUNTZA / EDUCATION

3 eskolen oihartzunak / échos des 3 écoles	28-29-30
--	----------

KULTURA / CULTURE

Musikari beharria / En avant la musique !	31
---	----

HAURTZAROA / ENFANCE

Udalekuk lehen kandela ufatu du / 1er anniversaire d'Udaleku	32
10 urte hartzaindegiko elkarteak / Les 10 ans de l'association Lekuonean	32

ZOZIALA / SOCIAL

Igor Misha et Svetlana, la famille ukrainienne	33
Hurbilez hurbil ibiltzen laguntzeko / Pour permettre de se déplacer en proximité	34
Gazteen aisialdiak / Activités de loisirs jeunes	34

HERRIKO BIZIA / VIE COMMUNALE

35

OPOSIZIOAREN IRITZIA / EXPRESSION DE L'OPPOSITION

36

HERRIARI MAJORITE MUNICIPALE

37

INGURUMENA / ENVIRONNEMENT

Panpako belar gaitza - Mundarrain eta Artzamendiko landare eta bitxoeriaren ezagutza elkarlanean	38
L'herbe de la Pampa - Inventaire de la faune et de la flore sur le massif du Mondarrain et de l'Artzamendi	38

EGUTEGIA / AGENDA

39

LEKUKOTASUNA / TEMOIGNAGE

40

Xan Mihura

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

Euskaraldia 2022

Berriz ere larrazken huntan harrotuko zauzkigu ezpain bazterrak, uzkailliko mintzaira usaiak, nahasiko kalaka ohiturak, zintzilikatuko ele ta gomesak...

3.aldikotz hor baitugu Euskaraldia, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra, euskara gure hizkuntza maitearen oholtza gainera altxatzeko sasoina !

2020an musu guti, ahoak tapaturik eta belarriak aphen, ez ginuen gure programa zoragarria Itsasuri aurkezteko paradarik izan ere... Alta bazen nun josta !

Ean ean aldi huntan, bakotxaren ideia eta ausardiarekin lortzen dugun gure herrian euskaraz gozaten !

Zatozte zuek ere gurekin hamar egun horien saltsan emaiten laguntzera (kontaktua Dioni 06 89 31 86 03, bilkura guti eta laburrak) !

Edo, xinpleki, zuek ere izena emazue orain berean ekitaldian parte hartzeko : euskaraldia.eus

Ahobiziak erne eta belarriprestak xut !

Euskaraldia est de retour !

Pour cette 3^{ème} édition, ce jeu de rôles grandeur nature nous propose du 18 novembre au 2 décembre 2022, de chambouler nos habitudes linguistiques !

La voilà l'occasion de mettre à mal nos préjugés sur une langue si souvent « minorisée » ou « empêchée » !

La voilà l'occasion de mettre à profit nos apprentissages à la gau eskola de cette langue pas si facile à manier !

La voilà l'occasion de découvrir, pour les non bascophones, ces sonorités d'une langue dont on ignore précisément l'origine !

Dans nos coins de rue, nos commerces, nos administrations, nos trinquets ou salle de gym, euskaraldia permet, euskaraldia ouvre, euskaraldia autorise, euskaraldia réunit...

Dix jours à sens unique, l'euskara, pour imaginer, rêver, chanter ou râler en langue basque !


Inscrivez-vous dès à présent sur euskaraldia.eus !



Huna hemen azaroaren 18tik abendoaren 3ra iraganen den Euskaraldiakari Itsasun izanen den egitaraua :

- azaroak 18 : "Haizea dator" bertsu saioa, aratseko 7tatik goiti Indianoenean.
Itsasuko bertso eskolak antolaturik
- azaroak 19 : 10ak-eguerdi bizikleta konpontze tailerra gaztetxean
Aratsaldeko 4tan ERROTALDIA Itsasun gaindi
Bukaeran jateko/edateko partekatua eta azken txapen banaketa
- azaroak 20 : Balakin pasaka partida eta aperitifa
- azaroak 25 : pintxo tailerra Atharrin
- azaroak 26 : zinema gaualdia 6tan Sanoki gaineko gelan (marrazki biziduna)
- azaroak 27 : mendi ibilaldia eta piknika
- abendoak 2 : Ixabe taldearen kontzertua Indianoenean
- abendoak 3 : EUSKARAREN EGUNA 10etan kafe poteo kantuz

Balaki en mode néo basque voulu et assumé Balaki Euskal Herriko etxeen itxuraz jauntzirik



Nous annonçons sur le bulletin municipal de juillet l'ouverture du marché public pour retenir le maître d'œuvre qui aurait la responsabilité du projet jusqu'à sa réalisation. Ce marché est attribué au cabinet Hemen dont le projet dessiné vient d'être retenu.

La commission composée d'élus municipaux et de représentants des associations impliquées dans le projet Balaki, assistée du CAUE, a présélectionné cinq cabinets d'architecture parmi les douze candidatures enregistrées. Chacun a disposé de deux mois pour interpréter la commande de la commune, maître d'ouvrage, produire une intention architecturale et la défendre à l'occasion d'une audition.

« Le style néo basque voulu et assumé s'intégrera dans le paysage urbain existant sans dénoter du bâti avoisinant créant ainsi un complexe pérenne. Il offrira une synthèse entre l'architecture d'origine du trinquet, l'architecture locale et contemporaine. » rapporte l'architecte lauréat du concours Michael Etchegaray dans sa note de présentation.

Nous avons désormais une idée de la métamorphose que subiront ces lieux : l'intention de l'architecte aura été de conserver l'image du trinquet Balaki qui est bien ancrée dans l'inconscient de tous, tout en y inscrivant une continuité qui devrait passer les années sans se démoder.

Avant le dépôt de permis de construire du complexe Balaki qui devrait être effectif pour la fin janvier 2023, la Commune, la commission dédiée au projet, le cabinet d'architecte avec ses bureaux d'études partenaires, auront à préciser les éléments de profil architectural, comme de fonctionnement interne et externe des locaux de Balaki.

Jakinerazten ginuen uztaileko herri aldizkarian merkatu lehia idekia zela Balaki trinketeko obrak kudeatzeko egitasmoaren marraztetik bururatu arteko lanak eramateko ardura hartuko zuenari. Hemen arxitekta etxearen proposamena atxiki berri du Itsasuko Herriko Etxeak.

Hamabi arxitekta taldeetarik bost atxikiak izan ziren agorrilaren erditan Balakiren proiektuaz arduratzen den batzordearen ganik, huntan elkartuak direla Herriko Etxeko hautetsiak eta Balakin partaide diren elkarte ordezkariak. Bost arxitekta talde horietarik bakotzak behar zuen bere marrazki asmoa agertu herriko etxeak eskatzen zizkion baldintzak kontuan hartuz.

« Euskal Herriko estilo modernoa gustuz eta hautuz jartzea karrika giro hortan diren etxeekin sortzeko eraikin bat iraunkorra. Modu hortan bateratuko dira trinketaren berezko arxitektura eta inguruko egoitzen arxitektura, bertakoak eta garaikideak », dio irabaztun atera den Michael Etchegaray arxitektak beren aurkezpenean.

Badakigu engoitik nola itxuraldatuko den Balaki-ren irudia : denen gogo inkonzientean fozilizatua den Balakiren irudia atxiki, eta hari jarraipen bat garatu urteen higitze arriskua gaindituko duena.

Obrak hasteko baimenak eskatu aintzin, hauek 2023-ko urtarril ondarrekotz pausatua behar luketelarik, elkarlanean, Herriko Etxeak, batzorde dedikatuak eta arxitekta taldeak bere iker bulego kideekin, beharko dituzte zehaztu arxitektura itxura, baita kanpo eta barneko funtzionamendu guztiak ongi egokitze erabiltzaileentzat.

laster inkesta publikoaren garaia bientôt le temps de l'enquête publique

Hirigintza plan proiektua Euskal Herriko Hiri Elkargoan « gelditua » izan da 2022ko uztailaren 9-an. Ez du hautetsi bakar baten ganik oharririk jasan, are gutiago eztabaidarik sortu, biltzar horrek bozkatu duelarik aho batez.

Uztaileko bozkaldi hortaz geroz, Itsasuko hirigintza planari buruzko dokumento guztiak ikus daitezke Herriko Etxeko edo Hiri Elkargoko internet gunean.

Bakotzak ikus dezazke bereziki lurren klasamenduari buruzko informazioak, ikusten ahal diren bezala OAP etxegintza arautuari dedikatuak diren eremuak, edo banakako eraikuntza berriari edo gehigarriari doazkion araudiak.

2012az geroztik herritar edo herritar multzo bakotxaren errangurak biltzeko idekia zen erregistroa ere hetsi da uztaileko bozkaldiarekin, PLU dozierrari lotzen baita ondoko urratsentzat.

2022ko azaro hastapen arte ikergai lukete pertsona publiko deitzen diren erakunde eta instituzio guziek bakotzak bere abisua adierazteko hirigintza plan hortaz.

Helduden urratsa inkesta publikoarena izanen da. Hilabete bat irauten du. Mementoko ez da jakina nor izendatua izanen den inkesta horren komisario, eta noiz kokatuko den hilabeteko inkesta publiko hori.

Itsasuar bakotzak inkesta publikoaren hilabete hortan adierazi beharko dizkio bere eskakizun eta arrangurak hirigintza planari buruz botere publikoak izendatuko duen inkesta egile horrekin hitzorduak hartuz.

Sur ces derniers mois, la cohérence de notre projet de PLU a pu être salué par différents acteurs institutionnels.

Nous voudrions juste retranscrire ci bas la liste de critères retenus par le syndicat du SCOT Pays Basque et Seignanx qui retient tous les critères sur lesquels le projet répond aux objectifs qu'il porte :

- recentrage de l'urbanisation
- sobriété foncière
- diversification et accessibilité aux logements
- dynamisation des cœurs de bourgs
- intégration des enjeux de paysage
- préservation et promotion des ressources économiques locales
- promotion des mobilités douces
- protection des ressources....

Le projet de PLU d'Ixassou a été arrêté en communauté d'agglomération en conseil communautaire de la CAPB le 9 juillet 2022. Le projet n'a pas donné lieu à commentaires ni débat et a été approuvé à l'unanimité des élus présents.

Depuis cette date et après visa du contrôle de légalité, l'ensemble des documents concernant le projet de PLU sont disponibles sur le site de la commune et sur le site de la CAPB.

On peut en particulier y consulter :

- les documents graphiques qui informent notamment sur le zonage (classement de chaque parcelle du territoire communal)
- le document spécifique aux OAP (Orientations d'Aménagement et de Programmation),
- le règlement qui fixe, par zone, les règles spécifiques applicables en termes de construction (implantation, emprise, architecture, équipements et réseaux...)

Le registre de concertation, qui était ouvert depuis la délibération de mise en révision du PLU en 2012 a été clos au moment du bilan de concertation et a été versé au dossier d'arrêt du PLU.

Ce dossier a été transmis à l'ensemble des Personnes Publiques Associées lesquelles disposent de 3 mois soit jusqu'au début novembre 2022 pour rendre leurs avis sur ce projet de PLU.

La prochaine étape du PLU sera l'enquête publique qui se déroule sur une période d'un mois sous la responsabilité d'un commissaire-enquêteur désigné par le Tribunal Administratif.

L'arrêté du Président de la CAPB fixant les dates et modalités de cette enquête n'est pas publié pour l'heure.

Les itsasuar et le public en général seront informés en temps et heures : une publicité réglementaire et obligatoire interviendra 15 jours avant l'ouverture de l'enquête (presse – affichage – sites web de la CAPB et de la commune).

L'enquête publique permettra à chacun de prendre connaissance de l'ensemble du dossier, de rencontrer sur rendez-vous le commissaire-enquêteur et de consigner sur le registre ouvert en mairie ses observations et autres doléances.

nor biziko da hemen etorkizunean ?

Nork eros dezazke hemen gaindi hogoita hamar edo berrogoita hamar urte dituzten etxeak eta interneten salgai ezarriak ? Sal prezio batzu askotan 500 000€ gainditzen dutenak edo batzuetan 1 000 000€ tan salgai ezarriak direnak.

Gure herritarren irabaziak murriztegiak dira ikusteko bikote gazte batzu edo familia arrunt batzu engaiatzen diruketa horren prestamutan. Beraz heldu zaizkigu bizi modu altuagoa duten metropoletarik herritar berriak gure bazterren xarmak enganatuak.

Herriko Etxe batek ez du indar handirik ikusten dituelarik notarioen ganik pasatzen bizitegi salerospenak, hainbeste zero daukaten zenbakitan negoziatuak. Notariak saltzapen guzientzat abisatu behar dituzte Herriko Etxeak, bereziki hiritartuak diren eremutan, segurtatu behar baitute herriak edo hiri elkargoak nahi duela edo ez duela tratuan den ontasuna bereganatu lehentasunez. Bi hilabete baditu herriak edo Elkargoak erosle bezala sartzeko saltzaile eta eroslearen arteko tratuan. Herria sartuko da erospenean prezioa jasangarria balinbada, oreka ekonomiko bat ikusten badu erosi ondokotz, eta beraz salgai diren etxe askoren prezioak ikusiz, askotan geldirik egoiterat behartua da.

Horiek horrela, Itsasuko Herriko Etxeak hurbildik segitzen ditu heltzen zaizkion etxe sal erospen guziak. Ez da zuhur egoiten eta bereziki zaintzen ditu agertzen diren etxe prezio ertain gehienak, zerbait ontasun arrazoinean biltzeko menturan, ondotik herritarrei prezio jasangarriko bizilekuak proposatzeko gisan.

Gertatzen ahal da etxe jabea bera jitea herriko etxerat jakinerazteko etxea salgai ezartzen duela baina nahi lukeela herritarrek erosi ahal balezate, nahiz bere etxearen balio xuxena eskatuko lukeen. Molde hortan baliteke egunen batean proposatu ahal izatea herriko gazte batzuei saltzeko edo alokatzeko bizitegi bakar batzu.



qui habitera ici dans l'avenir ?

Qui voulez-vous qui achète des villas de trente ou cinquante ans d'âge dont vous découvrez la mise en vente sur internet ? Des mises à prix qui dépassent couramment les 500 000€ et qui vont parfois effleurer le million d'euros.

Les revenus des habitants de nos villages sont trop contenus pour voir de jeunes couples ou des familles « ordinaires » s'engager dans de tels investissements. Viennent alors, en provenance des métropoles à niveau de vie supérieur, de nouveaux habitants qui sont tombés sous le charme de notre pays.

La mairie n'a pas davantage de pouvoir quand elle voit défiler les montants gorgés de 0 des déclarations d'intention d'aliéner (DIA) que lui font parvenir les notaires. Ceux-ci sont en effet tenus d'informer les mairies de tous les transferts de propriété, pour s'assurer en particulier que la collectivité puisse user du droit de préemption qui lui est légalement ouvert en zone urbanisée.

Un délai de deux mois est fixé par la réglementation pour que la collectivité fasse connaître sa volonté d'acquérir ou renonce à son droit. Le fait est que La Commune ne s'engagera que si elle peut trouver un équilibre économique dans l'affaire et reste impuissante sur la plupart des transactions.

Qu'à cela ne tienne, la mairie d'Ixassou suit de près l'ensemble des transactions qui lui parviennent. Elle ne se prive pas de faire étudier les quelques situations d'un montant « abordable » qui lui permettraient d'acquérir de l'immobilier qui viendrait modestement soulager le besoin important de logements pour nos habitants.

Il arrive même que des propriétaires viennent en mairie prévenir de leur intention de vendre leur maison en déclarant qu'ils en veulent pour sa vraie valeur mais insistent à déclarer qu'ils voudraient que ce bâti revienne à des jeunes du pays. Nous ne désespérons pas de pouvoir ainsi proposer aux itsasuar quelques logements en propriété ou en location.

Pareils cas de collaboration aussi rares soient-ils méritent d'être soulignés.



des échanges, des réactions, des ajustements, un temps d'évaluation

Les modifications de sens de circulation sur les rues du centre bourg ont largement fait la une des conversations de cet été 2022, au moins sur les secteurs concernés des quartiers Irigoïnia, et Mokoxainia- Larrondoia- Iguzkian.

Les élus de la mairie tiennent à faire part de l'ensemble des démarches qu'ils ont engagé sur ce dossier, en visant au mieux l'objectif d'intérêt général qui leur est imposé.

Des propositions sur l'aménagement du secteur Irigoïnia ont été présentées par la mairie aux représentants de ce lotissement, et ceux-ci ont mobilisé les riverains de la voie communale Irigoïneko bidea. Les retours ont en partie été pris en compte dans le rétablissement à double sens de Urzumuko bidea entre carrefour Sanoki et rond-point Irigoïntipi. L'aménagement de la voie communale du lotissement Irigoïnia a finalement été renvoyé à des réflexions ultérieures.

Des rencontres ont eu lieu à plusieurs reprises cet été 2022 avec les représentants du lotissement Irigoïntipi qui venaient s'assurer que leur secteur ne serait pas concerné par un prochain projet de déviation de la route d'Espelette. Des discussions ont eu lieu sur l'aménagement de l'espace entre la ferme Irigoïnia et le lotissement Irigoïntipi.

Une pétition qui a recueilli quelques 401 signatures a été déposée en mairie à la mi septembre par Mr Bosse Platière, propriétaire résident au lotissement Irigoïnia. Le texte de la pétition demande à la mairie de retirer tout le dispositif. Les arguments énoncés sont les suivants : « il n'y avait pas de problème de fluidité du trafic automobile », « les plots plastiques ne sont pas esthétiques », « la vitesse augmente en sens unique », et « les contournements impliquent plus de kilomètres, davantage de coûts et de pollution, et une augmentation des risques d'accidents ».



Un cahier de démocratie a également circulé sur le secteur Mokoxainia- Larrondoia, dans lequel une vingtaine de riverains ont consigné leur désaccord avec le flux de circulation qu'ils subissaient et ses conséquences, comme ils se plaignaient des détours auxquels ils étaient contraints pour rentrer chez eux. Un temps d'échange a été partagé en début septembre 2022 en mairie entre la dizaine de riverains du secteur Mokoxainia Larrondoia et les élus de la commune, à partir du cahier de démocratie précédemment déposé en mairie.

Ce sont des échanges plus informels et spontanés qui ont remonté la satisfaction des habitants de karrika nagusia en centre bourg, qui témoignent de décennies de démarches auprès des municipalités successives pour apaiser et surtout sécuriser cette rue principale d'Itxassou qui subissait le va et vient infernal de tous les véhicules en déplacement interne ou en transit route de Garazi - Espelette et au delà. On notera sur ces décennies que la réalisation de trottoirs en galets qui s'avéreront impraticables, la mise en place de ralentisseurs qui seront très vite supprimés, les interdictions de stationnement, les limitations de vitesse, le radar pédagogique et le réaménagement de la rue avec un giratoire largement décrié au trinquet n'auront apporté aucune solution tant aux usagers qu'aux riverains.

Des ajustements du dispositif ont été apportés dès la fin du mois d'août 2022 sur les sens unique d' Urzumuko bidea et Irigoïneko bidea.

C'est dans ce contexte que la mairie va engager un expert spécialisé en gestion des flux de circulation afin d'évaluer le dispositif avec le temps et les moyens nécessaires.



solasak, eztabaidak, hobekuntzak, ebaluaketa denboraldi bat

2022ko uda huntako solasgai nagusietan izan dira herri erdiko bide sentsu aldaketak, bereziki Irigoinea auzoan eta Mokoxainia- Larrondoa – Iguzkian alderdietan.

Herriko Etxeko hautetsiek nahi dute beren urrats guzietan berri eman dozier huntan, ahal den hobekien erantzunez baitezpada segitu behar duten interes orokorraren hariari.

Irigoinea auzoko ordezkariak aurkeztuak izan zaizkie antolatuta proposamen batzuek lotizamenak zeharkatzen duen herriko bideak, eta hauek elgarretaratu dituzte beren auzoko egoiliarak. Ordezkari horiek herriko etxerat itzuli duten ohar parte bat obratua izan da sentsu dolean ezarriz berriz Plazatik Irigoenttipirainoko Urzumuko bide zatia. Aldiz, Irigoineko lotizamenak zeharkatzen duen herriko bidearen egokitzea gerorako utzia izan da.

Hitzorduak izan dira behin eta berriz Irigoenttipi lotizamenak ordezkarien eta herriko hautetsien artean, Irigoenttipikoek bermeak nahi zituztela Ezpeletarik heldu den bidetik beren eremutan labor biderik ez dela pasatuko. Solasak ibili dira bereziki Irigoinea etxalde gibelean herriak eskuratua duen eremuaren erabilpenaz.

Petizione bat 401 izenpedurekin utzi du Bosse Platière jaunak herriko etxean buruilaren erditan. Petizionearen txostenak eskatzen dio herriko etxeri bide sentsu aldaketa guziaz kentzea. Agertzen diren argumentuak hauek dira : ez zen beribil trafikoan arazorik karrika nagusian, plaztikozko pitzoak ez dira estetikoak, abiadura emendatzen da sentsu bakarreko bideetan, gastu eta kutxadura gehiago, ixtripu arrisku gehiago itzulian hartu behar delarik herri erdiko Karrika nagusia.

Mokoxainiako auzoan etxez etxe ibili da demokrazia kaier bat, eta hogoi bat herritarrek adierazi dute beren arrangura edo ezadostasuna auzo hortarik pasatzen den oto andanarekin, eragiten dituzten ondorio txar guzietan, eta etxerat sartzeko

egiterat behartuak diren bide luzeagoarekin. 2022ko buruilaren hastapenean bilkura bat egin dute auzo hortako ordezkariak herriko etxeko hautetsiekin, solasgaien oinarri egun batzuek lehenago ekarria zuten demokrazia kaiera.

Informalkiago heldu izan dira herriko etxerat herri erdiko karrika nagusiko bizitzaileen satifamenduak, orotarazten dutela baduela hamarkadak eskatzen zutela Herriko Etxeri neurriak hartuak izan zitezten beribilen joan jin jasanezina lasaitzeko eta karrika segurrago bihurtzeko, herrian bereko beribilen ganik eta Luhuso aldetik Ezpeletara joan jinean ibiltzen direnen aldetik.

Egokipen batzuek ekarriak izan dira agorriaren ondarean uztailean ezarri ziren bide sentsu aldaketetan. Urzumuko bidea berriz bi sentsutan ezarria izan da, baita Mokoxaineko bidea ere Elizako bidearen kurutzagunetik Larrondoko bideraino.

Herriko Etxea ari da herri erdiko bide kudeaketaren ebaluaketa denboraldi baten antolatzen bide trafikuan aditua den norbaitek. Aditu hunen egutegiaren arabera, baitezpadakoa diren denbora eta ahalak ezarriko dira ebaluaketa hortan.



oinezkoen segurtasuna bermatu eta mogikortasun eztiaren bideak ideki assurer la sécurité des piétons et favoriser les mobilités douces

Herri erdiko bide sentsu aldaketak aurkeztuak izan ziren 2022ko ekainaren 15ean, bide eta bastimendu obren batzordean, baita ondotik jin zen kontseiluko bilkuran. Proposamen hauek ez zuten oharrik entzun arazi, ezpada galdera zehatz bat Larrondoko bidean ezarriko zen oinezkoen ibilbidearen alderdiaz, oinezkoak eskuin aldean ala ezker aldean.

Ez da herri erdiko beribil trafikoaren ixuria arazoa. Beribil eta kamionak kurutzatzen ziren ederki, lasaiki erabiliz oinezkoentzat lurra markatua zen eremua. Alderantziz da : oinezkoek eta bizikletariek dute ibili behar arriskurik eta beldurri gabe gure karrika eta herri erditan eta urrunago. Oinezkoek, haurren karrosek eta elbarrituen besaulkiek beren leku bete behar dute karrikan. Legeak behartzen du funtsean 2018az geroztik bide berritze guzietan bizikleten ibilbideak ere antolatzea.

Oinezkoen eta bizikleten segurtasun helburuak ditu behartu herri erdiko karrikak sentsu bakar ezartzea eta oinezkoen ibilbideak ongi adieraztea material bereziarekin.

Plastikozko pitzoak ez dira estetikoak. Denak ados dira. Hautatuak izan dira ongi berexteko oinezkoen eta beribilen ibilbideak. Inguruko giroari egokituak izanen diren material batzuek ordainduko dituzte gutiz gehienak.

Hain segur sentsu bakar diren bidetan beribilen abiadura doi bat zaluagoa da. Beharko da zehaztu abiadura emendatze hori eta ekarri behar diren neurriak abiadura zaluegia den guneean, bide sentsu aldaketak ongi finkatuak izanen direlarik.

Itzuli luzeagoen arazoak hunkitzen ditu bidearen erabiltzaile guziak. Luzamenduak ez dira zenbait ehun metraz gorakoak. Ez dira gutiestekoak denbora jaten baitute, erregaia xurgatzen baitute, eta CO2a ekoizten baitute. Oinezkoaren edo bizikletaren alde egiten den indar kolektiboak ez ote du balio zenbait ehun metra gehiagoko itzulia egitea beribilez, jakinik karrika erdiak eta bere bizitzaileek ere hats berri bat hartzen dutela bidenabar.

Les propositions de modifications de circulation avaient été présentées en commission bâtiment-travaux-voirie du 15 juin 2022 et sur la séance d'information et de travail du conseil municipal suivant. Ces propositions n'avaient soulevé aucune réserve sinon une question sur l'emplacement de l'espace piétons à droite ou à gauche de la chaussée dans le secteur de Larrondoko bidea. Aux arguments mis en avant par les signataires de la pétition, on rétorquera :

Ce n'est pas la **fluidité du trafic** en centre bourg qui posait un problème : voitures et camions s'y croisaient allègrement **MAIS** en empiétant généreusement sur l'espace piétons marqué au sol. Ce sont bien **des raisons de sécurité** qui ont motivé la mise en sens unique et la matérialisation des espaces piétons par un dispositif routier temporaire.

Piétons, personnes à mobilité réduite, en situation de handicap, autres landaus et poussettes ainsi que cyclistes doivent pouvoir se déplacer en toute sécurité sur nos centres bourgs et bien au-delà.

A noter que la loi impose même depuis 2018 d'intégrer des pistes « vélo » dans chacun des nouveaux aménagements de voirie.

2/ Les **plots plastiques** ne sont pas esthétiques : tout le monde en convient ! Ils ont été ponctuellement et temporairement retenus pour matérialiser la répartition des espaces voitures et piétons. Ils sont destinés à être remplacés par du mobilier urbain plus adapté à l'environnement de notre village.

3/ **L'augmentation de la vitesse** sur les voies à sens unique est certainement une réalité qu'il convient d'apprécier plus objectivement et auquel il faudra apporter des réponses, dès lors que les choix de sens de circulation auront été suffisamment stabilisés. Il n'en revient pas moins à chacun de s'astreindre aux règles déjà en place en termes de limitation de vitesse.

4/ **La question des détours** est celle qui impacte l'ensemble des usagers du quotidien. Les trajets de contournement ne dépassent toutefois pas quelques centaines de mètres. Ce n'est pas rien, ni en temps de trajet, ni en surcoût de carburant, ni en production de CO2 . Pour autant ne faut-il pas estimer que l'effort collectif à promouvoir les mobilités à pied et à vélo compense le détour des voitures au bénéfice d'un centre bourg apaisé, sécurisé et par voie de conséquence profitable certes à ses riverains mais au delà aux itsasuar et autres usagers ?

hondakin-bilketaren erreformaz

Hondakinen biltzeaz eta tratamenduaz Itsasuko herrian zenbait mezu zabalduak izanak zaizkie herritar guziei.

Hondakin berexketa etxetan

120 pintako plasztiko ontzi oriak ordainduak dira 2022 udazken huntan 240 pinta jasanen dituzten ontzi berdinekin.

2023 urte hastapenetik, hondakin araudi berrien arabera ezarriko dira paperak eta erosketa azalak ontzi horietan.

Sukalde hondakinak

Hiri Elkargoak mendi bide eta bide hertsietako erabiltzen zuen hondakin biltzeko kamioi ttikia baztertua da eta beraz ez dira gehiago etxez etxe bilduak izanen gure herriko hainbat auzo.

Latseko, Gibelarteko, Ortzia, Berandotzeko eta Gehastoko auzoek beharko dituzte ekarri beren hondakinak berexgune batzuetarat, Pexonteian edo Iturtxokoan.

Beste auzo batzu balin baziren hondakin kamioi ttikiaz bilduak, ondoko egunetan bilduak izanen dira kamioi handiaz bainan bazter bidetan diren etxe guzietan beharko dituzte bide nagusirat hurbildu beren hondakinak.

Etxez etxeokan ez da 19 tonako hondakin kamioia besterik ibiliko.



réforme de la collecte des déchets



Crédit photo L. Tomassi



Crédit photo L. Tomassi

Plusieurs messages concernant l'évolution du traitement des déchets ont été diffusés sur la commune d'Ixassou de la part de la Communauté d'Agglomération du Pays basque qui détient la compétence.

TRI SELECTIF

Les bacs individuels jaunes de 120 litres ont été remplacés par des bacs individuels jaunes neufs de 240 litres. Cette opération est intervenue dès le 20 octobre sous la responsabilité des agents de l'agglomération à l'occasion des collectes des bacs jaunes.

Dès le début de l'année 2023, les nouvelles consignes de tri permettront aux emballages et papiers de rejoindre le bac jaune.

ORDURES MENAGERES

Le petit camion de collecte déchets de la CAPB est retiré de la circulation et il n'y aura donc plus de porte à porte sur plusieurs quartiers d'Ixassou qui étaient collectés par ce camion.

Les habitants des quartiers Laxia, Gibelarte, Ortzia, Berandotz et Gehasto devront venir déposer leurs déchets sur des points tris qui seront installés à côté de Pexonteia ou à Iturtxokoa.

D'autres secteurs de la Commune qui étaient collectés par le petit camion se verront collectés par le camion 19 tonnes, avec l'obligation pour les habitations situées en impasse de rapprocher leurs bacs à ordures des axes principaux.

Seuls les camions 19t continueront à collecter au porte à porte.

elizan aire gaixtoa



Itsasuar askok entzun dute buruilaren leheneko gauean ortzi karraska harrigarri bat, elektrika ala elektronika tresneria asko andeatu duena hain segur etxe frangotan.

Ortzi karraskak gelditu ditu Itsasuko elizako dorrean erlojuaren orratzak goizeko 3 orenetan. Ez dute biharamunean herriko langilek hainbeste ikertzearen beharrik izan oartzeko aire gaixtoa ibili zela elizaren hegatz erdiko ezkil dorre ttikitik sakristiako leiho baterrean gaindi, andeatzuz elektrika sarea eta tresneria.

Beren hozgailua edo internet bokza galdu dituzten itsasuarrek lehen bait lehen abisatu dukete bere axurantz eta ordaindu edo antolatu ibiltzen ez zen materiala.

Herriko elizan obrak luzeago joanen dira, klasatua baita eliza 2008az geroztik, arxitekta bereziaren baimenak behar baitira obra gehienentzat, eta axurantzekin ikusi beharko baita nola hartzen diren berritz argi eta elektrika sareak, erlojuaren mekanika, baita bisitariarentzat ibiltzen zen argitze eta ahozko aurkezpen automatikoa.

Eliza hetsia egon da bisitariei eta herritarrei. Segurtasun aldetik baitezpadako neurriak harturik, eliza idekia da elizkizunentzat, argi bezainbat itzalekin. Goizegi da jakiteko noiz bururatuko diren baitezpadako obrak.

coup de foudre sur l'église du village

Beaucoup d'itsasuar ont entendu en pleine nuit du 1er septembre ce coup de tonnerre impressionnant qui aura provoqué chez les uns et les autres des dommages sur des matériels électriques ou électroniques.

Le coup de foudre a immobilisé les aiguilles de l'horloge de l'église d'Itxassou à 3 heures du matin. Il n'aura pas fallu beaucoup d'investigations aux employés municipaux pour constater que c'est par le clocheton de la toiture du bâtiment que le phénomène est passé, endommageant gravement tout le système électrique, pour ressortir par une fenêtre de la sacristie.

Les itsasuar qui ont vu claquer leur frigidaire ou leur box internet auront rapidement fait intervenir l'assurance et ont déjà pu certainement renouveler le matériel endommagé.

Les travaux sur notre église, classée monument historique depuis 2008, seront plus conséquents, puisqu'il faudra reprendre le système électrique et l'éclairage, les automatismes d'horlogerie, ainsi que le mécanisme de visite guidée, ou la partie électronique de l'harmonium.

L'église est actuellement fermée au quotidien pour les fidèles et les visiteurs.

Les éléments de sécurité ayant été confortés, l'église est ouverte pour son usage culturel, à l'heure des cérémonies religieuses, avec un niveau d'éclairage assez sobre.



Joachim Jaurregi



Jean Paul Martinon

Apez aldaketa San Mixel parropian

Joachim Jaurregi-k utzi du Itsasu, Ezpeleta, Luhuso, Ainhua, Zuraide eta Kanbo herrietako erretorgoa. San Mixel parropia huntan egon da 15 urtez saratarra.

Jean Paul Martinon apezak hartzen du San Mixel parropia hunen erretorgoa. Bidarte aldean zen azken urte hauetan eta ongi etorri ederra egina izan zaio urriaren 8an Kanbon aihertarrari.

Paroisse saint michel : J. jaurregi s'en va, J.P Martinon arrive

Joachim Jaurregi était curé de nos villages d'Itxassou, Ezpelette, Ainhua, Louhousoa, Souraide et Cambo. Il se retire sur Bayonne après quinze années passées au service de cette paroisse Saint Michel.

Jean Paul Martinon a pris la responsabilité de la paroisse Saint Michel depuis le mois d'octobre 2022. Il était jusque là curé de Bidart, après avoir passé quelques années sur Garazi.

Ataitzetako barranda

la balustrade du Pas de Roland

Ataitzek jasaiten du menturaz beribil gutiago, bainan ibiltzen da hor gaindi oinezko paseatzaile frango elizako auzoan aparkatzen direnak.

Itsasuko herriak erabaki du Ataitzetako gune hori segurtate normetan ezartzea, egokituz harrirainoko xendera hori. Herriko bi ofizialek dute elgarrekin obratu burdin barranda luzea.

Philippe Usandizaga eta Peio Saint Esteben-ek dituzte iragan hor 2022ko uda huntan zenbait egun lan. Lekuak behartzen zuen ongi finkatzea arrokartean bidexka hegiz hegi doan barranda, bere tirada bihurriarekin.

Herriko langilek dute ondotik Errobiko harriz sendotu oinezkoen urratsen ibilbidea.

Le Pas de Roland est sans doute moins encombré de voitures, mais plus visité que jamais par les promeneurs à pied qui ont laissé leur véhicule dans le quartier de l'église.

La commune s'est décidée à sécuriser le site et les normes en vigueur imposaient d'y installer un garde-corps conforme aux normes de sécurité.

Ce sont deux artisans ferronniers du village qui ont réalisé ensemble le chantier. MM. Usandizaga et Saint Esteben y auront passé quelques semaines de cet été 2022.

Les agents techniques municipaux ont finalisé l'ouvrage en reprenant le sol du sentier sur toute sa longueur afin de sécuriser l'accès à la brèche naturelle du Pas de Roland.

Errolan-en egiak eta alegiak

Mixerioa : Errolan zen Karlomagno-ren armadaren gibel parte guziaren kudeatzailea. Misterioak dio Errolan-ek behar zuela Itsasu zeharkatu armadaren erdirat heltzeko, baina Ataitzetako mendi artea hertsiegia izanez bere Durandal ezpatarekin harria zilatu zuela soldadoen pasaia idekitzeko. Beste gisan kondatzen da Errolan-en Veillantif zaldiak zuela uzta batez zilatu harria.

Zaldi famatu horrek utzi du uzta hatz frango Gavarnie aldean bezala nunahi Frantzian.

Ixtoria : Baskoien etsaia zen Karlomagno. Aix La Chapelle aldetik jautsi zen bere armadarekin Zaragozako Emirak eskaturik, hiri hori menperatzeko eta bere erreinua zabaltzeko asmoz. Bainan Zaragoza oldartu zen da eta Karlomagno-k amor eman behar izan zuen. Mendekuz, Iruna larrutuz eta hango harresiak suntsituz itzultzi zen. Bere armada handia Ibanetan gaindi zolarik iparrerat, baskoi euskaldunak antolatu ziren mendi lepo horietan armadaren gibel alde guzia lehertzeko.

Hiru mende geroago, arabeen kontrako kurutzada garaietan, 11 garren mendeko Errolan-en olerki epikoak berriz moldatu zuen Karlomagnoaren konkisten ixtorio guzia, Errolan beldurgabearen balentrien berri utziz Itsasun, Gavarnie-n, Aragon-en eta bestetan.



pas de Roland ...ou l'histoire d'un mythe

La légende : Roland était chargé d'assurer l'arrière garde de l'armée de Charlemagne qui doit franchir les Pyrénées. La légende dit que Roland traversant Itxassou pour se joindre à l'armée mais confronté à un passage trop étroit pour les troupes, ouvrit une brèche avec son épée *Durandal*. Une autre version veut que ce fut son cheval *Veillantif* (bride d'or) qui, d'un coup de sabot, ouvrit le passage.

Ce fabuleux cheval a laissé de nombreuses traces de ses sauts ou de ses coups de sabots, comme à la Brèche de Roland au-dessus de Gavarnie, ou ailleurs en France...

Les faits historiques : Charlemagne était l'ennemi des Vascons (basques de l'époque). Il descendit d'Aix La Chapelle avec son armée à la demande de l'émir de Zaragoza, dans l'espoir de s'emparer de la ville et d'étendre son royaume. Mais Zaragoza offre une solide résistance et le siège doit être levé. Charlemagne s'en retourne pillant à son passage Pampelune et rasant ses remparts. Sa grande armée remonta ensuite par les cols de la région d'Ibaneta à Roncevaux mais les basques, placés en embuscade s'organisèrent, massacrèrent les Francs et anéantirent l'arrière garde de l'armée de Charlemagne.

Quelques trois siècles plus tard, à l'époque des croisades contre les populations arabes, **La chanson de Roland**, poème épique du 11^{ème} siècle, réenchantera l'histoire des conquêtes de Charlemagne et dispersera le souvenir du vaillant Roland sur bien des sites d'Itxassou, de Gavarnie, d'Aragon et d'ailleurs.

kabalak eta aziendak mendian

2022ko uztailaren 26an elkartu dira Michel Bordato lehendakari berriaren inguruan groupement pastoral mendia baliatzen duen artzain taldea aipatzeko 2021ean jarria izan den mendi araudi berria.

Mundarrain eta Artzamendi mendietan ibiltzen den kabala nonbrea emendatuz joan da, nahiz ez den funtsezko gora beharrik mendia baliatzen duten hazleen artean.

Kabala marka aipatu da ekaineko bilkura hortan, zehaztu ahal izan diren bezala mendiko laguntzen banaketa araudiak, konduan hartuz mendian egon den kabala kopurua eta egun nonbrea.

Mundarraingo mazela batean mekanikazko garbitze lanak lagunduko ditu eremu horik aziendez baliatuak izaten eta idekiak egoiten.

Bestalde, mendiko artzainek (GP) eskatu dute Herriko Etxeari diru laguntza bat Mehatseko koralaren azkartzeko, ari diren bezala gogoetan beste beharordu batzuei aterabideak ekartzeko.

Udazken huntan antolatu da beste bilkura bat Groupement Pastoral artzainen elkarte horrekin.



les animaux en estive

Une rencontre a eu lieu avec les membres du groupement pastoral le 26 juin 2022 dont le nouveau président est Michel Bordato, afin de faire un point sur le règlement des estives activé en 2021.

Il apparaît que les effectifs présents sur les Massifs du Mondarrain et de l'Artzamendi sont en légère augmentation pour 2022 même si le nombre de transhumants sur ces massifs est plutôt stable.

Quelques points ont été abordés comme les marquages, des précisions ont également été apportées sur le mode de calcul de la répartition des aides tenant compte de l'effectif des animaux présents pendant une période précise sur les massifs.

Le passage d'un gyrobroyeur sur le Massif du Mondarrain a permis d'entretenir ce côté de la montagne afin qu'il puisse rester ouvert aux animaux et entretenu par eux.

Par ailleurs, le groupement pastoral a demandé une aide pour renforcer le corral de Mehatse et réfléchit à d'autres besoins liés à l'estive des animaux.

Dernièrement une autre réunion a été organisée avec les transhumants.

biperreko langile sasoiariak traballaires saisonniers du piment

Bada zenbait gogoetaldi Ezpeletako biperra ekoizten duten etxaldetan lan egiten duten sasoiariekin, bereziki langile hauen egoitza arazoekin.

Galdeketa bat igorria izan da 2022ko urrian Itsasuko 18 biper ekoizleei jakiteko zehazkienik zoinak erabiltzen dituen langile sasoiariak eta nola banatuak diren hauk etxaldetan. Nahi da bereziki jakin zenbat denbora egonen den langile sasoiaria, hemengo den edo urrunagotik jina, bizitegi bat alokatu duen ala furgoneta batean egoiten den, eta zakurrik baduenez berekin.

Galdeketa horren emaitzak ukanez geroz, errexago izanen da ekoizle eta hautetsien artean mintzatzea eta aterabideak lantzea ondoko biper sasoiari buruz

Des réflexions sont en cours concernant les salariés saisonniers travaillant dans les fermes productrices de piment d'Espelette et notamment sur leurs conditions d'accueil et d'hébergement.

Un questionnaire a été envoyé en octobre 2022 aux 18 producteurs d'Itsassou de piment d'Espelette pour savoir plus précisément comment ces travailleurs saisonniers sont répartis dans les fermes, combien de temps travaillent-ils, d'où viennent-ils, dorment-ils dans un camion aménagé, possèdent-ils des chiens ?

Une fois les résultats de cette enquête obtenus, il sera plus facile d'échanger entre producteurs et élus et de travailler à des solutions concernant l'accueil de ces travailleurs.



suterik gertatzen balitz hurbiltzeko

Beren mendia ezagutzen duten itsasuarrek badakite sute arriskua badela Atharri eta Arroakai mazeletan ere. Denek badakite leku zakar horietarat hurbiltzea ezinezkoa dela suak lotzen eta indartzen balire. Ihiztariak berek idekitzen dituzte urtero Arrokaïn suebakiak.

Mendi mazela horik garbi atxikiak ziren 1960 urteak arte azienden alharekin eta urte guzietan epaiten ziren iratze eremu guzietan. Eginmolde horiek gibel egin dute, bereziki eremu hobereenak lur berriro ahal izan zirenetik.

Atharri iguzki gibela eta gehiago bada gaurregun arras zikindurik laparrez, iratzez eta otez. Behar ditugu neurririk hobereenak hartu ez ikusteko pindar xoil bakar baten gatik gure mendi pareta guziak kixkailtzen, aterbetzen duten bioaniztasun guziarekin, eta hazten hasi diren zuhaitz gazte guzietan.

Horregatik ditugu garbiaraziko tresna telemanatuekin mendi zirrizta batzu gora beheran, behar orduan sokorriak hurbiltzeko gisan. Ondoko urtetan, suebaki horien garbirik zaintzeak lan eta gastu gutiago luke.



Pare feu sur Arrokagarai

cohabitation et bonnes pratiques en montagne

Un gros travail de sensibilisation engagé en direction des randonneurs et autres usagers de la montagne.

En effet, de nouveaux panneaux relatifs à la préservation de la faune, de la flore ou tout simplement des pratiques agricoles ont été mis en place.

Les bonnes pratiques en montagne y sont consignées notamment l'obligation pour les marcheurs de garder leurs chiens en laisse sur l'aire pastorale, de même que l'interdiction de jeter papiers et autres mouchoirs dans la nature.

Si on note un changement de comportement, relatif, quant à l'obligation de garder les chiens en laisse, nous réfléchissons à des moyens plus coercitifs s'appuyant sur le règlement intérieur des estives. Pour rappel : seuls les ayants-droits transhumant peuvent garder leurs chiens en liberté car ceux-ci participent au travail de ramassage des troupeaux.



mendiaren erabiltzaile guzien arteko harremanak

Kabala hazleetaz mendiaren beste ibiltzaile eta erabiltzaileei buruz bada pedagogia lan bat bidean.

Panel haundi berri batzu ezarriak izan dira Itsasuko lau mendietan, behar den arta hartzea eskatuz fauna guziaz, lore eta landaretegiez, baita laborantza hazkuntza bizi moduez.

Aldiro panel guzietan aipatzen da baitezpada kasu egin behar dela zakurren loturik atxikitzeaz, lurrerat aurdukitzen diren paperki eta beste hondakinetaz bezala.

Badira naski aintzinamenduak, baina gogoetak badira mendiaren zaintzeko araudien aplikapena tinkatzeko.

Beste behin adierazi nahi dugu mendian erabiltzen duten artzain eta kabala hazleek baizik ez dituztela zakurrak libroan uzten ahal, beren lanak hortarat behartzen baititu.

pouvoir intervenir en cas d'incendie

Les itsasuar qui connaissent leur montagne savent que le risque d'incendie existe sur des versants comme Atharri ou Arroakai, et ils savent que les accès sont indispensables pour parer au feu si par malheur il arrivait.

Ce sont le plus souvent les périodes de fin d'hiver qui sont les plus à risque d'incendie pour ces montagnes intermédiaires où n'entrent plus de troupeaux domestiques. La végétation abondante est alors desséchée par les vents et le froid, tout autant que par l'état de son cycle végétal.

Elles étaient entretenues jusqu'aux années 1960 par la pâture des brebis, comme elles étaient fauchées annuellement sur de grandes surfaces pour la récolte de la fougère. Ces pratiques ont régressé entre autres dès lors que les meilleures parcelles ont pu être défrichées en prairies.

Le versant nord d'Atharri et bien au-delà, est désormais colonisé par une inextricable végétation de ronces, de tuyas et de fougères qui laisse progressivement percer des pousses d'arbres. Nous devons nous donner les moyens d'éviter qu'une étincelle malheureuse ne réduise en cendre toute cette végétation, la biodiversité qu'elle héberge, et tous les arbres qui ont réussi à s'y implanter.

Nous ferons broyer la végétation sur plusieurs bandes verticales avec des machines télécommandées pour permettre l'accès en cas d'incendie. Sur les années suivantes, les opérations d'entretien devraient exiger bien moins de moyens.

66 herritarat zabalduko gerezi lurraldea une zone de production cerise sur 66 communes

L'association Xapata rassemble les producteurs de cerises d'Itxassou ».

Comme vous le savez, depuis plusieurs années, nous travaillons à l'élaboration d'un dossier de demande de reconnaissance en Appellation d'Origine Protégée (AOP) pour la " Cerise d'Itxassou / Itsasuko gerezia".

Jusqu'en 2019 ses adhérents et leurs cerisiers se trouvaient sur la commune d'Itxassou et les communes limitrophes. Depuis janvier 2020, et grâce au travail de terrain d'un étudiant en Master Développement des territoires, origine et qualité des produits, une zone plus large de 66 communes a été établie et validée par l'association Xapata et semble recevable pour l'INAO (Institut National des Appellations d'Origine).

Nous avons également travaillé cette année sur la valorisation économique possible. Cet automne, nous avons proposé aux agriculteurs de venir les rencontrer lors de réunions publiques qui se sont déroulées le Jeudi 6 octobre à la mairie de Baigorri et le Jeudi 20 octobre à la mairie de St Pée sur nivelle.

La filière cerise d'Itxassou a besoin de se développer pour répondre à la demande croissante des consommateurs et restaurateurs et elle peut être une **activité complémentaire** intéressante pour les agriculteurs.

Voici la liste des 66 communes de la future zone AOP : Ahaxe-Alciette-Bascassan, Aincille, Ainhice-Mongelos, Ainhoa, Anhau, Arhansus, Armendarits, Arneguy, Ascain, Ascarat, Ayherre, Banca, Béhorléguy, Bidarray, Bonloc, Bunus, Bussunarits-Sarrasquette, Bustince-Iriberry, Cambo-les-Bains, Caro, Espelette, Esterençuby, Gamarthe, Halsou, Hasparren, Hélette, Hosta, Ibarolle, Iholdy, Irissarry, Irouleguy, Ispoure, Isturitz, Itxassou, Jatxou, Jaxu, Juxue, Lacarre, Lantabat, Larceveau-Arros-Cibits, Larressore, Lasse, Les Aldudes, Lecumberry, Louhossa, Macaye, Mendionde, Mendive, Ossès, Ostabat-Asme, Saint-Esteben, Saint-Etienne de Baigorri, Saint-Jean le Vieux, Saint-Jean Pied de Port, Saint-Just Ibarre, Saint-Martin d'Arberoue, Saint-Martin d'Arrossa, Saint-Michel, Saint-Pée Sur Nivelle, Sare, Souraïde, Suhescun, Uhart-Cize, Urepel, Ustaritz et Villefranque.

Xapata elkarteak "Itsasuko gerezien" ekoizleak elkartzen ditu. Dakizun bezala, badu aspaldi Itsasuko gereziarentzat AOP sormarkaren ukaiteko ezagupen galde txostena idazten ari girela.

2019 urtea arte, elkartearen kideak eta norberaren gereziondoak Itsasu eta ondoko herrietakoak ziren. 2020ko urtarritetik, eta "Lurraldeen garapena, mozkinen jatorria eta kalitatea" Masterrean zen ikasle baten lanari esker, sormarkako eremua Lapurdi eta Baxe Nafarroko 66 herritara zabaldu zen.


Aurten landu da ere balorapen ekonomikoa. Udazken huntan, 2 bilkura antolatuak izan dira urriaren 6an, Baigorriko Herriko etxean eta urriaren 20an, Senpereko Herriko etxean.

Kontsumitzaile eta profesionalen eskaera gero ta handiagoari erantzun nahi badiogu, Itsasuko Gerezien sarea garatu behar dugu. Laborarientzat, gerezien landatzea aktibitate gehigarri interesgarria izan daiteke. Ekoizpen baldintzeri buruz hitz egiteko, eta datu ekonomikoak partekatzeko, laborariak gomitatzen ditugu antolatzen ditugun bilkuretar.



Les plants de cerisiers seront en vente cet hiver aux environs de mi décembre : 23 euros/plant aux particuliers et 17 euros/plant aux agriculteurs adhérents. (sur réservation)

Gerezi arbolak salgai izanen dira negu huntan, abendo erdian : 23 euro partikularer, 17 euro laborari kideer. (aitzinetik erreserbatuz).



Benat Hernaniarra

Biper sasoineko langile jiten diren gazteak badira gure herrian hamarnaka. Haietarik baten ezagutza egin dugu berriki Herriko Etxerat jin delarik aurkezterat eta posta helbide baten eskatzerat. Benat bere furgonetan bizi da biper ekoizleen etxaldetan lan egiten ez duelarik.

Hernanin sortua eta bizi izana da Benat duela berriki arte. 26 urte ditu. Industriako langile izateko ikasketak jarraitu ditu bere ikasle garaian. Lanbide bat kausitu izan du bere eskualdeko CAF industriako enpresa handian, baina ez zenez baitezpada laketzen, Donostiako ospitaleko langile ere egon izan da denbora batez. Azken urte hautan Katalunia alderat urrundua zen bere neska lagunarekin.

Kataluniatik Itsasurat biper biltzerat nola hurbildu den galdetzen diogunean, esplikatzeko Benat -ek bere aita Hernanin erri duela eta Itsasutik errexki ibiltzen ahal dela kimioterapia artatzeak dituenean ospitalean edo asteburutan aitari laguntzen eta hurbilenean egoiten.

Lantegi barnean lan egitea baino gustukoagoa duela dio Benat-ek biperreko lana. Itsasuko bost etxaldetan lan egiten du aldizkatuz beste herrialde batzuetako lagunekin. Bigarren sasoina du aurtengoa, Kanbon baitzen biperreko langile jaz. Errexago dela euskaraz komunikatzeko beretzat Itsasuko biper ekoizleekin aitortu dauku.

Furgonetan bizitzeak ez du baitezpada hainbeste kezkatzen aro ederra delarik. Denbora txarrak eta haize euriak egun osoan ari dituelarik zaio gostatzen, gutieneko aterbe bat ez baitu bere furgonetatik aparte egoiteko. Neguaren hurbiltzeak ere arranguratzeko du, ikusten delarik iluna goizik jausten eta gaualdi luzeak pasatu beharra furgonetako eremu hertsian hortan.

Azkenean Benat-ek adierazi dauku nahiko lukeela herri huntan jenden begi ona eta errespetua ardietsi, nahiz bizi modu ezberdina izan berea eta bera bezala biper landetan langile sasoiari jiten direnena.



Plusieurs dizaines de jeunes gens viendraient d'un peu partout pour répondre aux besoins de main d'œuvre des producteurs de piment d'Espelette. Nous avons échangé plus longuement avec l'un d'eux lors de son passage en mairie pour domiciliation sur la commune. Benat a 26 ans et vit dans son fourgon quand il n'est pas dans les champs de piment.

Natif d'Hernani (Gipuzcoa), il y a suivi son parcours scolaire dans une filière technique qui prépare aux emplois dans l'industrie et a d'ailleurs occupé un poste dans la puissante entreprise CAF de Beasain.

Il a également travaillé comme agent de service à l'hôpital de Donostia pour, ces dernières années, rejoindre la Catalogne où il avait suivi sa compagne.

Quand on l'interroge pour comprendre comment il décide de travailler sur les fermes d'Itxassou qui produisent du piment, alors qu'il avait migré dans la région de Barcelone, Benat nous explique que son père est malade, et qu'un emploi sur Itxassou lui permet de l'accompagner pour les séances de chimio à l'hôpital de Donostia, et d'être présent à ses côtés les fins de semaine.

Côté emploi sur la filière piment, Benat s'en accommode bien. Il apprécie davantage ce travail en extérieur que les emplois industriels en usine. Benat, comme plusieurs autres salariés du piment, est employé sur cinq fermes d'Itxassou. Après avoir effectué une première saison de récolte de piments sur Cambo l'année dernière, il reconnaît être plus à l'aise cette saison sur Itxassou où il peut, sur les fermes qui l'emploient, davantage s'exprimer dans sa langue l'euskara.

Le mode de vie en camion lui va bien à la belle saison. Il redoute par contre les longues journées de pluie et de vent, lorsqu'il n'a pas où s'abriter sinon se réfugier dans son véhicule.

L'approche de l'hiver aussi le préoccupe, avec les jours qui tombent de bonne heure et les soirées qui n'en finissent pas.

Enfin, lors de notre bref entretien, Benat nous a fait comprendre qu'il voudrait pouvoir mériter le regard bienveillant des habitants d'Itxassou qu'il rencontre. Il appréhende nous dit-il, comme la plupart de ses camarades travailleurs saisonniers du piment, d'être considéré comme marginal à cause d'un mode de vie quelque peu bohème.

erle beltza

hobeki ezagutu eta ezti-az gozatu

Jende alde polita bildu da Erle beltzaren 5garren edizioenean. Itsasuko « Erle beltza » elkarteak antolatua zuen Bidarrain urriaren 3an..

Hogoi bat erlezainek beren ezti laginak bidaliak zituzten aurtengo ezti lehiaketara. Mintzaldi arrakastatsua entzun ahal izan ditugu: Claire Villemant insektoetaz arduratzen dena Pariseko "Museum d'histoire naturelle" delakoan, Asiako liztorraz ari izan zauku bai eta ere erle basa mota guzietaz.

Lekuko mozkin merkatuan murgildu da jendea, argazki erakusketa bat ikusten ahal zelarik denbora berean erlezaintza eta erleetaz.

Ezti lehiaketako txapeldunak bere burukoa eskuratuko du Lurrama 2022ko aren karietan.

Egun ederra dudarik gabe insektuen munduaz arrangurantzaren direnentzat.



cours d'initiation à l'apiculture

L'association ERLE BELTZA continue de proposer des cours d'initiation à l'apiculture à Itxassou pour l'année 2023. Pour tout renseignement contacter aristeo.erlezaintza@gmail.com

ERLE BELTZAK segitzen du erlezaintzari buruzko kurtsuak eskaintzea 2023 urteko. Xehetasunentzat idatzi : aristeo.erlezaintza@gmail.com



gagner en savoir et savourer les miels

Soleil et public nombreux étaient au rendez-vous de cette 5ème édition de la "journée de l'abeille noire", organisée par l'association "Euskal erle beltza" d'Itxassou , en partenariat avec la commune de Bidarraï .

Concours de miel (une vingtaine de participants); conférences menées de main de maître par Claire Villemant, entomologiste, attachée honoraire au Museum d'histoire naturelle de Paris (frelon asiatique, abeilles sauvages) ; Marché de producteurs ; Exposition photos ...autant d'ingrédients qui ont ainsi assuré le succès de ce dimanche 3 octobre.

L'heureux lauréat du concours de miel devrait se voir remettre la " boina" du xapeldun , dans le cadre des journées" Lurrama 2022 " devant se tenir en novembre prochain.

Nul doute que cette journée aura contribué à la sensibilisation du grand public au monde des " pollinisateurs ".



urte atsegina klubarentzat

Gure lehiakideek atsegin frango ekartzen daukute, baina gastu arrangura zenbait ere. Lagundu nahi gaituenak edo laguntzaile bilakatu, hurbiltzen ahal zirezte : tresorier@urtipula.eus.

Urtaldi on bat aurtengoan ere Itsasuko kayak klubarentzat. Gure lehiakide gazteak ongi atera dira txapelketetan.

Unai Oteiza-k eraman du U15 kategorian Frantziako txapelketa. Nahia Oteiza U18 Frantziako ekipako kide da Paris-ko jokoentzat eraikia den putzu olinpikoan ederki kalifikatua izanik. Bigarren bururatzen du Frantziako kayak txapelgoan, 19 garren Europako txapelgoan Txekozlovakian, eta 21garren mundu mailako txapelgoan Italian.

Antton Erdois-ek Frantziako kanoe lehiaketan doi doietarik hutsegiten du Frantziako ekipan onartua izatea, eta laugarren ateratzen da Frantziako U18 txapelgoan.

Edgar Paleau-k hirugarren bururatzen du Frantziako U18 kanoe kayak txapelgoan, baita hirugarren Slovakiako Bratislavako open txapelgoan, eta lehen senior sailean Border- cross Navarra txapelketan.

Lau atleta hau kirol mailako elitean ibiliko dira eta lehiatuko dira 2023ko Frantziako ekipan sartzeko. Lehiaketa sail hori hazteko gisan, Ur Tipula Klubak antolatzen du gaztetxoentzat arraun motz ikastegi bat .

Beren gozamerako ur ontzitan ibiltzen direnek urtaldi murriztagoa ukan dute erreka uraren neurri apalaren gatik. Hargatik usaiako ateraldia Kataluniako Palleresa alderat atxikia izan da. Kluba ibili da baitaere Nafarroa, Gipuzkoa eta kantabriako elgarretaratze batzuetarat.

Urte guziz bezala, Itsasun antolatu dugu Akitania Berriko Eskualdeko ekitaldi bat slalom putzuan. 300 ontzitaraino jiten zaizkigu asteburu batez eskualde eta adin guzietakoak. Hasiberrietarik Frantziako ekipako kideetaraino (Boris Neveu, munduko txapeldun besteak beste)

Kluba idekia da 9 urtetarik goitiko denei, eta gogotik hartuko ditugu kide berriak.



ur tipula



nombreuses satisfactions pour le club

Nos brillants compétiteurs nous apportent beaucoup de joie et de satisfaction, mais nous posent également des soucis de trésorerie... Si vous souhaitez nous aider et devenir partenaire, vous pouvez nous contacter sur tresorier@urtipula.eus

Une année riche encore pour le club de kayak d'Ixasou. Nos jeunes compétiteurs se sont particulièrement illustrés cette année.

Unai Oteiza en kayak a remporté les championnats de France U15. Nahia Oteiza en kayak est membre de l'équipe de France U18 après une brillante qualification au bassin Olympique des jeux de Paris. Elle termine deuxième aux championnats de France, 19^{ème} aux championnats d'Europe en Tchécoslovaquie et 21^{ème} aux championnats du monde en Italie.

Antton Erdois, en canoë, manque de peu sa qualification en équipe de France et termine 4^{ème} aux championnats de France U18. Edgar Paleau termine 3^{ème} aux championnats de France en combiné kayak et canoë en U18, 3^{ème} à la compétition open de Bratislava en Slovaquie, et 1^{er} au Border - cross Navarra Txapelketa (en catégorie sénior).

Ces 4 athlètes courront en Élite et disputeront une sélection en équipe de France pour l'année 2023.

Afin d'alimenter ce pôle compétition, le club a mis en place une école de pagaie pour les plus jeunes pratiquants.

La section loisir a été moins gâtée avec un déficit de pluviométrie inquiétant cette saison. Néanmoins la traditionnelle sortie club à la Palleresa en Catalogne a été maintenue. Le club s'est également déplacé à divers rassemblements en Navarre, Gipuzkoa et Cantabrie.

Comme chaque année nous avons organisé une compétition régionale à Ixasou sur le bassin de Slalom. Nous accueillons jusqu'à 300 embarcations sur le week-end, de tout âge et de tout horizon. Du débutant aux membres de l'équipe de France (Boris Neveu, champion du monde entre autre).

Le club est ouvert à tous à partir de 9 ans, nous serions très heureux d'accueillir de nouveaux membres. N'hésitez pas, jetez-vous à l'eau !

menditarrak

hirurogoi gaztek besta ederrak itsasuarrei

Menditarrak Itsasuko besta komitea hirurogoi bat gazte biltzen dituen elkarte bat da, herriko bestetako bost egunen antolatzea duelarik helburu nagusia.

Kide bakotxaren funtsezko inplikazioneari eta elkarlan ederrari esker dute kausitu Itsasun 2022 urte huntako besta eta arrabesten muntatzea.

Antolaketa luzea da herriko bestena. Urtarrilean hasten da egitarauaren finkatzearekin eta musika taldeen hautuarekin.

Ondotik ibili behar da sponsorren ikusten. Uda partean jiten da etxez etxe sos biltzea, urrats administratibo guzien jarraitzea eta besten antolakuntza bera.

Urtea bururatzten dute Menditarrak elkartekoen beren arteko bazkari batekin, ongi ospatzeko egin eta kausitu ahal izan den guzia

Herritar guzietan eskerrak bakotxaren parte hartzea gatik besta eder horietan.



une soixantaine de jeunes offrent de belles fêtes au village

Le comité des fêtes d'Ixassou est une association regroupant une soixantaine de jeunes du village, réunis pour l'organisation des 5 jours de fêtes.

C'est grâce à une grande cohésion et beaucoup d'investissement de la part de chacun que nous avons réussi à organiser les fêtes et les refêtes 2022.

C'est une organisation très longue qui débute en janvier avec le choix de la programmation et la réservation des groupes.

Par la suite nous nous occupons de solliciter les sponsors, puis en début d'été nous entamons les quêtes et toute l'organisation avec les démarches administratives et toute la mise en place des Fêtes !

Nous clôturons l'année avec un repas du comité, qui permet de bien fêter cette réussite

Nous tenons à remercier tout le monde pour sa participation à ces très belles fêtes.



Retour en images...Fêtes d'Itsasu 2022



Tournoi de foot du samedi des fêtes



Feu d'artifice du lundi au quartier du Laxia



Mercredi soir au quartier de l'église



herri kirolak Nafarroan

Agorrilaren 14 ean jokatu dute Donamarian uztailean sailkatu ziren Patxi Igoa Itsasuarrak eta Ibai Telletxea Baionakoak Nafarroako 3. mailako aizkora txapelketaren finala. Goresmenak !

Le 14 août a eu lieu à Donamaria la finale du championnat de Navarre d'aizkolari de 3ème catégorie. Félicitations à l'Itsasuar, Patxi Igoa et au bayonnais, Ibai Telletxea !



kide gehiago pilota eskolan

Pilota eskolaren urtaro berria hasi da kide kopuru emendaketa batekin, seinale ona baita hau Itsasuko pilotaren etorkizunerako.

Maiatzean, joko berri lehiaketak bere usaiako lekua kausitu du berriz. Ikusliar asko partida guzietan, lagundu baitu aurtengo lehiaketa ederrago egiten Bielle- Ducassou-ren nagusigoarekin bururatu dena.

Ekain ondarrean, Atharriko gaztetxo lehiaketa : biharko xapeldunek ederki bururatzeko dute sasoina. Partida horiek badute beti arrakasta berezia, gure gaztetxoak lehen aldiz agertzen baitira pilotari jauntzi xuritan kantxan, beren familien atseginerako.

Plaza laxoko emaitza ohargarrienen aldetik, minimoetan Frantziako xapelgoko erdi finalerak heldu dira Lukian Richepin eta Thomas Sahasquet. Seniorren bigarren sailean aldiz Luka Fourmeaux eta Estebe Parachu bikotea heldu da Euskal Herriko xapelketako erdi finaletaratz.

Buruilaren hastapenean, Union Basque lehiaketaren finalak jokatzen ikusi ditugu Itsasuko plazan. Itsasuarrak elkarteko bi ekipa atera dira txapeldun : Luis Ducassou eta Unai Saint Esteben xitoetan, eta seniorretan Antton Moustirats eta Anthony Aguerre.

Aupa Itsasuko pilotariak ! Aupa Itsasuarrak !

itsasuarrak



Beti eta oraino dinamika ona neska pilotarien aldetik hogoi bat kide berriekin , Isabelle eta Argitxuk dituztela trebatzen Atharri eta Balakin. Beste hainbesteko neska multzo bat parte hartzen ari da garai hauetan trinketeko balina jokoarekin trinketean, trebatzaile dituztela Sandra, Alfred, André eta Alain.

Ateak beti zabalik daude neska jokalariei berrientzat eta trebatzen atrebitu nahi dutenentzat.

Toujours une très bonne dynamique du côté de la pelote féminine avec une vingtaine de débutantes à l'école de pelote encadrées par Isabelle et Argitxu à Atharri et à Balaki. Un autre groupe d'environ 20 filles qui participent en ce moment au championnat de pelote creuse en trinquet, sont encadrées par Sandra, Alfred, André et Alain. La porte est toujours ouverte tant pour les nouvelles joueuses que pour les encadrant.e.s.

effectifs en hausse à l'école de pelote

La rentrée de l'école de pelote nous a permis d'apprécier une augmentation d'effectifs qui est de bonne augure pour l'avenir de la pelote à Itsasu.

Au mois de mai le traditionnel tournoi de Jokoberri a repris son cours normal. Beaucoup d'affluence sur l'ensemble des parties qui a permis une excellente édition marquée par la victoire de l'équipe Bielle-Ducassou.

Fin juin, le tournoi des débutants d' Atharri, a permis à nos jeunes pousses de clôturer leur saison en beauté. Ces rencontres ont toujours un vif succès et permettent à nos enfants de faire leurs premiers pas en tenue officielle sur la kantxa, pour le plus grand plaisir de leurs familles.

Pour les résultats marquants de la saison de Place libre, l'équipe minime Lukian Richepin et Thomas Sahasquet a atteint la demi-finale de championnat de France. En senior deuxième série, l'équipe Luka Fourmeaux et Estebe Parachu s'est hissée en demi-finale de championnat du Pays-Basque.

Début septembre, nous avons eu la chance d'accueillir les finales Union basque: deux équipes du Club ont gagné leurs finales : en poussin B, Luis Ducassou et Unai Saint-Esteben et en senior, Antton Mustirats et Anthony Aguerre.

Aupa Itsasuko pilotariak ! Aupa Itsasuarrak !

ataitze



vivre et transmettre la culture

En ce mois d'octobre, le groupe Ataitze redémarre sa saison avec de nouveaux adhérents ainsi qu'une nouvelle dynamique.

Nous lançons un projet de rénovation et d'aménagement de la salle de danse (sol, rangement, wc, point d'eau...)

En effet, après de nombreuses années rythmées d'activités, cela devenait indispensable.

Nous entreprenons également un inventaire et une mise à jour du vestiaire afin de redonner une touche de couleur à nos différentes représentations.

La cinquantaine d'enfants et les 20 jeunes se réuniront comme chaque année pour rythmer la vie d'Ixassou lors d'Olentzero, du carnaval, des feux de la St Jean et des fêtes du village.

Nous tenons à maintenir et à transmettre nos traditions qui se veulent riches dans notre village.

Les cours de danse ont lieu toutes les semaines à partir de 7ans. Pour toute autre information n'hésitez pas à nous contacter ou à nous suivre sur [instagram@ataitze](https://www.instagram.com/ataitze)

Itsasuarrak section gym

Berritz abiatu ditu gorputz ariketa ekitaldiak Itsasuarrak sail berezituak.

6 ekitaldi eskainiak badira astero : 3 Pilates ekitaldi eta 5 gimnastika ekitaldi, aktibitate hauk goizez edo iluntzez antolatua direla Sanokin.

Urteko kide saria 130€koa da eta ematen du ekitaldi guzietarat joateko ahala. Kide kopuruak eta jarraitasunak erakusten dute gure kirol hezitzaileen gaitasuna. Orduen taula Herriko Etxeko internet gunean kausitzen ahal da.

kultura oraikoek bizi eta ondokoei utzi

Urriko hilabete huntan abiatzen du Ataitze dantza taldeak urtaro berria, kide berriekin eta dinamika berrituarekin.

Ataitze dantza gelaren egokitze eta antolatze proiektu bat badugu bidean. Berritu behar dira zola, altxatzeko tokiak, komunak, iturriak eta beste.

Hainbeste urtez egin eta erabili ondoan, baitezpadakoa bilakatu da dantza gela horien freskatzea.

Lotzen gira baitaere daukagunaren inbentario baten egiteari eta jauntzitegiaren berritzeari kolore aiosago bat ekartzeko gure ikusgarrietan.

Berrogoi ta hamar bat haur eta hogoi gazte bilduko dira urte guziet bezala Itsasuko kultur biziaren jarraitzeko eta sustatzeko, Olentzero kari, ihauteria garaiez eta Jondoni Joani suen ospatzeko.

Gure herriko ohidurak nahi ditugu atxiki eta transmititu, gure herriaren altxorra baitira.

Dantza ikasgaiak astero izaten dira 7 urtez gorako haur guzientzat.

Edozoin argibide gehiagorentzat, etor lasai guri buruz eta jarraik gaitzazue [instagram@ataitze](https://www.instagram.com/ataitze)



La section gym d'Itsasuarrak a repris ses activités.

Elle propose 8 cours par semaine (3 cours de Pilates et 5 cours de gym) qui se déroulent à la salle Sanoki soit le matin soit le soir.

La cotisation annuelle donnant accès à tous les cours s'élève à 130€. Le nombre et l'assiduité de nos adhérents témoignent de la compétence de nos éducateurs sportifs. Le tableau des horaires se trouve sur le site de la mairie.

club des aînés Idekia



gelditu gabe elgarrekin

Udako ongi merezitu oporretarik landa, Itsasuko adinetakoen klubak berriz hartu ditu buruilaren erditik aintzina bere aktibitate guziak.

Asteazken guzietz, Sanoki gelan : gorputz ariketa ezta goizeko 8.45etarik 9.45ak arte. Euskal Herriko dantzak 10 etarik 11ak arte

Hilabeteko bigarren eta laugarren asteazkenetan, karta jokoak edo bestelako mahain jokoak, 14.30tarik lekora

Astelehen eta ostiralez, petanka jokoa 14etan

Ostirale guzietz : oinezko ibilaldiak goizeko 8.30tan, hitzordua Boroï ostatu aintzinean delarik

Hilabeteroko oinezko ibilaldiak Idekiaren barne aldizkarian agertzen dira

2022ko laugarren hiruileko informazioak

Azaroaren 16an : lotoa Sanoki gelan 14.30tan

Abendoaren 15ean : Idekiaren urteko biltzar nagusia Sanokin, goizeko 10etarik landa. Ondotik bazkaria Eltxaurrenian

Xehetasun guzientzat :

michel.iturburua@orange.fr Tel 06 79 48 11 68

jeanine.feutry@orange.fr Tel 06 72 39 74 61



des animations sans répit

Après les vacances d'été...bien méritées, les Aînés d' Itxassou ont repris toutes leurs activités depuis la mi-septembre.

Tous les mercredis à la Salle SANOKI :
Gymnastique Douce de 8h45 à 9h45. Danses Basques de 10h00 à 11h00

Les 2e et 4e mercredis à la Salle SANOKI :
Cartes et Jeux de sociétés à 14h30

Tous les lundis et vendredis : Pétanque à 14h

Tous les vendredis : Marches Hebdomadaires à 8h30. Rdv devant le bar chez Boroï.

Marches mensuelles programmées sur Bulletin trimestriel.

Informations 4eme Trimestre 2022

- **16 Novembre** : Loto à la salle Sanoki à 14h30

- **15 Décembre** : **Assemblée Générale** annuelle d'IDEKIA à Sanoki à partir de 10h suivie d'un repas servi au restaurant Bonnet à Itxassou

Pour tout renseignement :

michel.iturburua@orange.fr - Tél 06 79 48 11 68
jeanine.feutry@orange.fr - Tél 06 72 39 74 61



Itsasuko itzulia

bi lasterkaldi eta ibilaldi bat

Atsegin handiz antolatu du bere usaia ekitaldia Itsasuko Itzulia elkarteak. 2022ko buruilaren 11n gertatu da. Bi lasterkaldi eta oinezkoen ibilaldi bat baziren eskainirik Itsasuko xendra eta tontorrik ederrenetan.

Iguzki beroarekin, 24 eta 14 kilometrako lasterkaldiek, oinezko ibiltzaileek bezala gozatu dute eguna eta preziatu dituzte janari edari geldiguneak.

Jordan Pointeau-k 24 kilometrako lasterkaldian ezarri ditu 2,16 oren eta Sarah Dinclaux-ek 2.40 oren.

Guillaume Leroy-k 14 kilometrako lasterkaldian ezarri ditu 1.16 oren eta Veronique Couvreur-ek 1.41 oren.

Egunaldia bururatu dute partaide eta laguntzaile guzietan urrupaldi eta afari gozo baten itzulian.

Eskerrik beroenak laguntzaile eta sponsorrei, haiek gabe ez bailiteke Itsasuko itzuliaren ekitaldirik.



Heldu den urte arte, Itzuliaren edizio berri batentzat.



deux courses et une randonnée

C'est avec un grand plaisir que Itsasuko Itzulia a pu de nouveau cette année organiser le 11 Septembre 2022 deux courses et une randonnée à travers les sentiers et les beaux sommets d'Ixassou.

Sous une chaleur estivale, les participants aux courses du 24kms et du 14kms ainsi que les randonneurs, ont répondu présents et ont apprécié les divers ravitaillements.

Jordan Pointeau a réalisé un temps de 2H16 et Sarah Dinclaux en 2H40 pour faire les 24kms.

Guillaume Leroy a parcouru les 14 kms en 1H16 et Véronique Couvreur en 1H41.

Pour finir, l'ensemble des participants et des bénévoles ont pu partager un moment convivial autour d'un repas et d'une buvette.

Un grand merci aux sponsors et bénévoles sans qui l'évènement n'aurait pas lieu. Rendez-vous l'année prochaine pour une nouvelle édition.

75 itsasuar ekipa lehian 75 équipes d'itsasuar en lice

Lasaiek antolatzen duen bederatzigarren pala txapelketak Itsasuko 75 ekipa sartu ditu aurtengo edizioan. Maiatzetik buirilera antolatuak dira palazko pilota partidak herriko Plazan. Aurtengoa bururatu da sail bakoitzeko final lehiaketekin gaineko plazan, ondotik iragan delarik afaria urriaren lehenean Atharrin.

Esker beroak jokolari eta laguntzaile guzietan, lehiaketa biziaz eta herriko plaza alaitu baitute. Beste hainbeste heldu den urtean.

Gaineko plazan antolatuak diren merkatuetan muskulio eta frita mahainak ere betiko arrakasta ukan duenez, eskerrak ahozuri guzietan!

lasai



Finale 1ère série masculine

La 9^{ème} édition du tournoi de pala a réuni 75 équipes d'itsasuar cette année. Les parties se sont déroulées de mai à fin septembre. La saison s'est terminée avec les finales de chaque série au fronton suivies du repas à Atharri le 1er Octobre dernier.

Un grand merci à tous les participants et bénévoles qui ont fait vivre ce tournoi et animé le fronton. Rendez-vous l'année prochaine !

Notre stand de moules frites a encore une fois rencontré un grand succès lors des cinq marchés nocturnes estivaux. Merci à tous les gourmands !

Itsas'rock



tous en scène

jokoa eta inprobisaketa

« Tous en scène » elkarteak giro goxo eta alai batean errezibitzen ditu 3 antzezle talde : 6-12 urteko 2 talde eta aurten 12 urtetik goitiko nerabe talde bat.

Irailaren 9an iragan zen antzezlanaren sartzea.

Jende guzti hau joko eta inprobisaketa inguruan elkartzen da astelehen eta ostiral guziz, ekainean egingo dugun antzezlan liluragarria prestatzeko.

Aurten ere Laurence eta Benjamin animatzaileek biziartziko dute elkartea.

Sartze on deneri eta urte bukaerako antzezlanean elkar ikusteko irrikitan gira !



aste guzirako mitxa

Gure erakaslek ematen dituzte ikasgaiak maila guzientzat, bakoxtari ekarri berak behar duen laguntza berezia.

Duela 13 urte Itsasuko zenbait lagun arteen sortu zen Itsas'rock. Bi erakasle jiten dira xintzo astero astero irakasterat.

Asteazken aratsetan, 19.15tik 21.45etarat, Leylak proposatzen ditu dantza ezberdinak baltsa lasaia, txapeloaz edo Jerusalem bezala. Ondotik, 20.45tik 22.45ak arte, Michel ek trebatzen gaitu Bachata eta Salsari. Ostirale aratsetan, 19tik 22.30ak arte, Michel ek eskaintzen ditu ikasgaiak bi maila ezberdinei, rock eta lindy hop trebatzeak, azken dantza hau swing eta jazz etik jalgia delarik. Internet lokarri huntan ikusten ahal dira dantza modu hauk : <https://youtu.be/aeem2BsAhYg>!

Osasun egoeraren gatik joan diren bi urte nekeen gatik, gure elkarteak segitzen du pixkor, kide berri zenbaitekin eta aintzineko kide askorekin.

Dantzak gure bi erakasleekin emaiten dauku aste guzirako mitxa, eta elgarrekin girelarik ederki gozaten dugu.

la « pêche » pour la semaine

Nos deux professeurs donnent des cours tous niveaux confondus et savent apporter à chacun l'aide dont il a besoin.

Il y a 13 ans, quelques amis Itsasuar ont créé Itsas'rock. Deux professeurs viennent fidèlement donner des cours toutes les semaines. Le mercredi soir de 19h15 à 21h45 Leyla nous propose des danses variées tel que la valse lente, la Txapeloaz, Jérusalem. Puis de 20h45 à 22h45 Michel nous propose Bachata, Salsa. Le vendredi soir de 19h à 22h30 Michel donne à deux niveaux, débutants et confirmés, des cours de rock et lindy hop, danse issue du swing et du jazz. Voici un lien pour découvrir cette danse : <https://youtu.be/aeem2BsAhYg>!

Après deux années difficiles suite au contexte sanitaire notre association continue à vivre, avec des nouveaux adeptes et anciens adhérents qui reviennent nombreux.

La danse avec nos deux professeurs nous donne la pêche pendant la semaine, et nous passons un très bon moment ensemble. Tout cela se fait à la salle Sanoki. Bureau d'Itsas'Rock : 07 83 67 24 88. Mail: itsasrock64@gmail.com Retrouvez nous sur www.itsasrock.fr. Facebook : www.facebook.com/Itsasrock

tous en scène

activités de jeux et d'improvisation

L'association « Tous en scène » accueille dans une ambiance joyeuse et chaleureuse 3 groupes d'acteurs : 2 groupes enfants de 6 à 12 ans et pour la première fois cette année 1 groupe d'adolescents à partir de 12 ans.

La rentrée théâtrale a eu lieu le 9 septembre dernier. Tout ce petit monde se retrouve chaque semaine autour d'activités de jeu et d'improvisation les lundi et vendredi.

Tous ces acteurs en herbe vous préparent aussi un magnifique spectacle plein de surprises qui aura lieu au mois de juin prochain !

Cette année, l'association compte toujours sur ses 2 animateurs de choc : Laurence et Benjamin qui nous a rejoint l'an dernier.

Bonne rentrée à tous et au plaisir de vous voir dans le public lors de notre représentation de fin d'année !!

zatozte marrazten eta margotzen ikasterat

Zatozte marrazkigintza eta margogintzaren ikasterat ! Urte guzietan bezala, marrazki eta margo ikaskuntzak hasi dira urriko lehen asteartean Itsasun.


Tailer hau kudeatua da Bordaleko Arte Ederretako eta Pariseko Arte Eskola eta Arte Apaintzaileko diplomak dituen erakasle baten ganik. Itsasukoa idekia da gazte eta helduei, marrazki eta margogintzan hasiberri ala berdin zohituei. Elkarte giroan iragaiten dira ikasgaiak, prezio jasangarrian eta denek ordaindu ahal izateko gisan.

Giro lasai batean, jarriko zirezte marrazkiaren eta margoaren oinarriko jakitateri, edo sakonduko duzue egiten dakizuena. Anatomia azterketak, paisaiak, izadi geldiak, perspektiba eta bolumenen eraikuntza, arte lanen kopiazea edo nork bere sorkuntza... denek bideratzen dituzte teknika ezberdinen menperatzeari : akrilika, tintak, akuarelak, arkatz lanak, igeltxoak, kolaketak, teknika mixtoak, etc. Giro alaiean ikasten da, deskubritzen da, eta atsegin ekartzen du.



Artearen ixtoria usu aipatzen da, hobeki konprenitzeko eta kokatzeko artearen itzuliko mogimenduak, eta emateko tematika eta tekniken adibideak. Bada ere estakurua denei idekiak diren kultur ateraldien egiteko : erakusketa bisitatzeke edo artistikoki aberatsak diren gune batzuen ikusterat joateko, Bordale ala Bilbo edo beste noranahi, gogoak eta aktualitateak bultzatzen duten bezala.

Xehetasun beharrez : 0559938246 – 0609236915

Baliteke izen emaita ikasturtea hasi ondotik ere. Laster arte !



Itsasu'art



vous apprendrez à dessiner et à peindre

Comme chaque année, les cours de dessin et de peinture ont repris le premier mardi d'octobre à Itxassou.

Cet atelier est animé par un professeur diplômé des Beaux-Arts et de l'Ecole des Arts Décoratifs de Paris et s'adresse aux adultes et aux adolescents, débutants ou confirmés. Les cours se déroulent dans un cadre associatif, leur prix est modéré et accessible à tous.

Dans une ambiance détendue, vous vous familiariserez avec les notions de base du dessin et de la peinture, ou vous approfondirez leur pratique. Etudes anatomiques, paysages, natures mortes, perspective et construction de volumes, copies d'œuvres et créations personnelles permettent l'apprentissage de techniques variées : acrylique, encres, aquarelle, crayons, craies, collages, techniques mixtes, etc. : on expérimente gaiement, on découvre et surtout, on se fait plaisir !

L'Histoire de l'art est abordée régulièrement, afin de mieux comprendre et situer des mouvements artistiques et de fournir des exemples de thèmes et de techniques. C'est aussi l'occasion de sorties culturelles ouvertes à tous, visites d'expositions ou de lieux riches sur le plan artistique et patrimonial, à Bordeaux, Bilbao ou ailleurs, selon les envies et l'actualité.

Pour tout renseignement : 05 59 93 82 46 - 06 09 23 69 15.

Inscriptions possibles au cours de l'année. A très bientôt !

école publique / eskola publikoa



itsasuko haur guzien elkartzeko momentuak

Mezu honen bidez baliatzen gira ere irakasleak eta laguntzaileak eskertzeko. Gure haurrei eskaintzen dizkiete kalitate handiko irakaspenak, anitzak eta kulturalak (elebitasuna, herri jokoak, lekuko animalien eta landarediaren deskubritzea, murgiltze eredu ikasgela proiektua).

Ikasturte hasiera honetan poztuak gira jakitea irakasleak antolatzen hasiak direla bidaia eder bat Zokoara ekainean. Horrez gain, elkarren arteko zoriontasun momentua den ARIMEN GAUA ekitaldian Itsasuko hiru ikastetxeek parte hartzeak loriatzen gaitu ere.

Urriaren 31ko gau horretan haurrak zuen atera jotzera etorri zaizkizue.

Aurten, plazer handiz bulegoko bi kide berriei ongi etorria egiten diegu. Horrek gure jarduera aberastu eta anizten lagunduko digu.

Dinamika horretan, espero dugu haurrek nunbrean etortzen segituko dutela eskola eder honetan kopuruak sendotuz eta ikastetxea loratzen lagunduz.

Itsasuko haur guzien arteko trukatzeko momentuak sustatzeko asmoz, kermeza handi bat antolatuko dugu ekainean, Atharrin, jarduera desberdinekin: herri jokoak, makillatze tailerra, ostatua.

Denak ongi etorriak izanen zarete !

les moments d'échange entre tous les enfants du village

Nous tenons à profiter de ce mot pour remercier les instituteurs et les ATSEM qui offrent à nos enfants un enseignement varié et culturel (bilingue, jeux basques, découverte de la faune et la flore locales, projet de classe en immersion) de grande qualité.

L'année scolaire commence bien avec le projet d'un beau voyage organisé par les instituteurs en juin à Socoa ainsi que la préparation d'ARIMEN GAUA qui a réuni les trois écoles dans un moment de joie partagé.

Les enfants sont venus toquer à vos portes cette fameuse nuit du 31 octobre.

Cette année, nous avons le plaisir d'accueillir de nouveaux membres au bureau ce qui permettra de multiplier les actions.

Nous espérons dans cette dynamique que de nombreux enfants viendront encore et toujours plus nombreux s'asseoir sur les bancs de cette belle école en gonfler les effectifs et l'aider à s'épanouir.

Afin de multiplier les moments d'échanges entre tous les enfants d'Itsasu, une grande kermesse avec des jeux basques, atelier maquillage, buvette, aura lieu à Atharri courant juin.

Nous vous y attendrons nombreux !

Arrokagarai ikastola



berdintasuna hari gorri

Irailean antolatu ditugun ekitaldietan, gure aldarrikapenetan, hari gorri bat bazen : **BERDINTASUNA!!** hizkuntzen arteko berdintasuna ! Genero eta jende desberdinen artekoa !

Tantoz tanto... Irabazi arte !!

Pilota lema horren inguruan, 250 pertsona bildu ginen irailaren 25an itsasuko plazan, ikastolak antolatu zuen pilota partidetan !

Baina zer irabazi arte ? Gauza ainitz ditugu irabaztekoak !

Gure haurrek ikastolan, ez dute euskara baizik ikasten, baina euskaraZ ikasten dute ! Zendako ? Euskaraz bizi nahi baitugu ! Beraz Euskara ofiziala izan arte batailan ariko gira eta tantoz tanto, plazaz plaza segituko dugu borrokan,

Haurrek Euskaraz ikasten dute bai, baina gero frantsesez pasatzeko azterketak ?! Azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea lortu arte tantoz tanto batailatuko dugula orroitarazi nahi izan dugu lema horren bidez !

Egun hortan, neskei gure plazetan ukatua izan zaien lekua berriz ezartzen saiatu gira ! Nesken arteko esku huskazo partida bat antolatu dugu jakinez diziplina hortatik beti baztertuak izan direla ! Plaza libreetan ez da sexismorik !

Bestalde, hilabete hastapenean, Integrazio batzordearen alde Brik a Brak bat antolatu ginuen, desberdinak diren haurrek laguntza gehiago ukan dezaten ikastoletan, eta inklusioan, gurekin batera segi dezaten !!

Zentzu hortan segituko dugu Tantoz Tanto... Irabazi arte !!



l'égalité en fil rouge

Arrokagarai ikastola a organisé 2 beaux événements en septembre et le fil rouge était l'EGALITE!!! L'égalité entre les langues ! L'égalité entre les genres et l'acceptation des différences !!

Tantoz tanto... irabazi arte (expression de pelote : « point par point... jusqu'à la victoire ») !!

Nous étions plus de 250 à nous être retrouvés au son de ce slogan le 25/09 au fronton d'itsasu lors des parties de pelote organisées par l'ikastola !

Mais de quelle victoire parlons-nous ?

Par cette journée nous voulions affirmer que le « projet » des ikastola n'est pas d'apprendre le basque, mais d'apprendre EN basque ! Pour au final vivre en basque ! Nous bataillerons « tantoz tanto » pour que l'euskara devienne officiel en iparralde au même titre qu'est le français !

Nous avons rappelé par la même occasion que nos enfants apprennent en basque mais pour, au final, passer les examens en français... Nous lutterons pour qu'ils puissent passer les examens en Euskara ! Apprendre l'euskara c'est bien mais encore faut-il qu'il soit encore reconnu et utile !

Lors de cette journée nous avons aussi donné aux filles la place qui ne leur est pas donnée! Nous avons organisé une partie de filles à main nue. Elles ont toujours été mises à l'écart de cette discipline ! Dans les places libres, pas de place au sexisme !!

En début de mois, nous avons aussi organisé un Brik à Brak en faveur d'Integrazio Batzordea, association qui aide à inclure les enfants dans les Ikastola avec leur/s différence/s !!

Et on continuera à défendre ces principes ! Tantoz tanto...Irabazi arte !!



San Josep eskola

burrasoak diru biltzeko antolatzen

Ikasturte berria hasi da eta burrasoen elkarteak lanari lotu da berehala.

Ikasturte bururatzean, kabalkada baten sortzeko asmoa bada, aurkeztua izanzen baita eskolak 60 urte ospatuko dituen bestan, orduan espero dugu hurbilduko dela ikasle ohi frango.

Elkarteak antolatuko ditu ohizko ekitaldiak azaroaren 20eko seaska hustea edo maiatzaren 8ko landareen merkatua bezala.

Baita ere urtean zehar antolatzen dira bixkotx, xokoleta edo izai saltzapenak diru zenbaiten biltzeko.

Hori guziaz eskolaren ateraldien gastu sarien parte bat dirustatzeko, CP eta CM2 koek gozatzan duten zenbait egunetako ikuskatze ateraldia, CM2koen elur egonaldia, edo material pedagogikoaren ordaintzeko.

Aurten ama eskolakoek parte hartuko dute ihauteriz Hartza Altzoan festibalean, Herri Soinuk kudeaturik.

Burraso elkarteak dirustatzen ditu ere herriko beste ikastetxeekin amankomunean antolatzen diren ekitaldiak : Olentzeroren bisita, Ihauteriak, edo Arimen Gaua bezalakoek elkartu baitituzte hiru eskoletako haurrak karrikatik abiatuko den ibilaldian Atharrin iraganen den gaudiraino.

des parents à l'œuvre pour collecter des fonds

Une nouvelle année scolaire commence et l'association des parents d'élèves de San Josep est déjà à l'œuvre avec la création d'une cavalcade qui sera présentée lors de la fête pour les 60 ans de l'école durant laquelle nous espérons voir beaucoup d'anciens élèves.

L'association organisera les manifestations habituelles comme le vide poussette (20 novembre) ou le marché aux plantes (8 mai). Mais aussi, les ventes de gâteaux, chocolats ou sapins tout au long de l'année qui permettent de récolter des fonds.

Tout cela pour financer une partie des sorties scolaires que l'équipe enseignante organise comme le voyage découverte, d'une durée de quelques jours, pour les classes du CP au CM2, le séjour au ski des CM2 ou encore du matériel pédagogique.

Cette année, les maternelles participeront, durant le carnaval, au festival Hartza altzoan organisé par Herri Soinu.

L'association finance également les dépenses autour des événements avec les autres écoles du village comme la visite d'Olentzero, le carnaval ou encore Arimen Gaua (la nuit des âmes) qui a rassemblé les enfants des trois écoles lors d'un défilé dans le village et d'une soirée à Atharri.



musikari beharria / en avant la musique !

Dantzarekin hasi bazen Itsasuko ikastetxetan 2021eko ikasturtea, aurtengoa musika proiektu batekin abiatzen da hiru eskoletan.

Buruiletik gauzaten hasi da Herriko Etxeko euskara batzordeak auspotu zuen proiektua. Alabainan nahi ginuen hiru eskoletako haurrek bizi ahal izan zitzaten euskarazko kultur aktibitateak.

Gainera garrantzitsua iduritzen zitzaigun hazten segitzea jaz bezala hiru eskolen arteko dinamika bateratzailea.

Herriko Etxeak CMR federakuntzari dei egin dio, landagunetako musika zentroak izanki CMR horiek.

1948-an sortu zen elkarte da CMR, heziketa herrikoiaren baloretan oinarritua, eta helburu nagusi daukana herritar gehienei musikaren kultura zabaltzea, adin guzietan eta gizarte giro ezberdinetan. Elkarrekin erantzuten du baita ere hezkuntza nazionalaren eskakizunei, kultur ministeritzarenei bezala, sustengatzeko kulturaren eta artearen hezkuntza.

Amaia Iriart-ek du, CMReko langile euskalduna izanik, erakasten astearte goiz guzietan 45 minutuz hiru eskoletarik bakotxean, 2022-ko buruiletik 2023ko martxoa arte. Bere eginkizuna da ikasleen jakinguraren ernatzea munduko gaurko musikekin eta gure kulturako tradiziozko musikekin. Erakasleekin ikusiko da nola doan aurtengoa eta araberan pentsatuko da ondoko urtetan atxikitzeari.

Zinez nahi ginuke esperientzia hau ekarpen baliosa izan dadin haurrentzat berentzat eta herriko haurrak beren artean hurbiltzen laguntzeko, eta nork daki, musikari berriak sortzeko.

Après la danse à la rentrée 2021, cette année scolaire a débuté en musique au sein des trois écoles de notre village.

L'idée du projet, insufflée par la commission Euskara, a vu le jour dès le mois de septembre. En effet nous souhaitons permettre aux élèves des trois écoles de vivre à nouveau une activité artistique et culturelle en langue basque. De plus, il nous semblait important de soutenir la dynamique fédératrice initiée l'an dernier entre les différentes écoles du village. La Mairie a donc fait appel à la Fédération des CMR (Centre Musicaux Ruraux).

Que sont les Centres Musicaux Ruraux?

Une association fondée en 1948 sur les valeurs de l'éducation populaire qui a pour objectif de "favoriser l'accès à la musique au plus grand nombre, à tous les âges et dans tous les milieux de vie".

L'Association répond également aux sollicitations de l'Education Nationale et du ministère de la Culture pour soutenir l'éducation artistique et culturelle.

C'est Amaia Iriart, salariée bascophone du CMR qui intervient depuis le mois de septembre tous les mardis matins et ce jusqu'au mois de mars pendant 45 minutes dans chacune des écoles d'Itsasu.

Elle a pour objectif d'éveiller la curiosité des élèves à travers les musiques contemporaines du monde et traditionnelles de notre culture. Après concertation avec les équipes enseignantes, si cette nouvelle activité s'avère positive nous envisageons de la pérenniser.

Nous espérons vivement que cette expérience contribuera à enrichir et rapprocher les enfants de notre village et qui sait, éveiller de nouvelles vocations !



arimen gaua

Urriaren 31-an elkartu dira berriz Itsasuko haurrak, bigarren aldikotz, Arimen Gauaren ospatzeko.

Ekimen baikorra, hiru eskoletako haurren burraso eta irakasleen elkarlan ederra neguko urtaroan sartzeko, errito zaharraren biziarazteko.

Besta estakuru bat gehiago, agian iraunen duena, elkartzeko handi ttipiak gure kulturaren ohidura baten inguruan.

Pour la deuxième année consécutive, les Itsasuar se sont retrouvés le 31 octobre pour fêter Arimen gaua !

Une initiative positive et une belle mobilisation des parents d'élèves et des enseignants.es des 3 écoles d'Itsassou pour faire revivre ce rite de passage à l'hiver !

Une nouvelle occasion festive, qui on l'espère deviendra pérenne, pour réunir petits et grands autour d'une coutume de notre culture.

lehen kandela ufatu da Udalekun premier anniversaire d'Udaleku à Itxassou

Bereziki eskertu nahi ditugu uda huntan parte hartu duten famili guziak! Pozten gira Itsasun euskarazko animazioak aintzina segi dezaten !

2022ko udan huntan, Itsasuko Udaleku bilgunearen lehen kandela ufatu dugu. Iaztik bakantza guziz ideki den aisialdi zentroa da. 3-11 bitarteko elebidun edo murgiltze sistemaren diren haurrei zuzendua da.

Uda honetan, uztailearen 11 eta agorriaren 26aren artean, 132 haur ibili dira bertan, hots 37 haur egunka bataz beste. 18 animatzaileek tailer ezberdinak animatu dituzte : haurrei « Animaleak » gaiaren inguruko animazioak eskaini zaizkie. Udan zehar, ateraldien bidez, animale mota ezberdinak deskubritu eta haien bizilekuak ezagutzeko parada ukan dute.

Un grand merci à toutes les familles qui ont permis de dynamiser le centre d' Udaleku Itsasu. C'est avec joie que nous voyons se développer l'animation en euskara sur Itsasu .

L'association Udaleku a ouvert pour le deuxième été le centre de loisirs d'Itxassou. Depuis un an, sur plusieurs périodes de "petites" vacances scolaires et sur les vacances d'été, les enfants de 3 à 11 ans y ont été accueillis, qu'ils soient scolarisés en système bilingue ou immersif en euskara.

A l'été 2022, 132 enfants ont pu participer aux activités d'Udaleku Itsasu, depuis le 11 juillet jusqu'au 26 août 2022, avec en moyenne une présence de 37 enfants par jour d'ouverture. 18 animateur-trices ont assuré l'animation de ce centre de loisirs.

10 urte haurtzaindegiko elkarteak les 10 ans de l'association Lekuonean

2012-2022 : Lekuonean haurtzaindegiak ospatu ditu bere hamar urteak 2022ko uztailearen 22-an. Parada izan da familia guzientzat, haurtzaindegiko langileentzat eta elkartearen laguntzaileentzat elgarretaratzeko ikusgarri baten itzulian eta ondotik urrupaldi eta taloak partekatzeo. Besta ekitaldia, ttipi eta handiek denek preziatu dutena.

25 haur onartzen ahal ditu lekuonean haurtzaindegiak. Marina Errecart 2020az geroztik zuzendari denaren itzulian ekipa sendo bat, gaitasun onekoa, onginahia eta dinamikoa. Kalitatezko harrera haurtzaindegia eta burrasoentzat.

Lekuonean haurtzaindegia engaiatua da urrats zenbaitetan bere elkarte proiektuarekin lotuak :

- Elebidun labelaren eskuratzea
- Jarraitzea bere engaiamendua bio eta bertako elikadurari buruz. Baratze pedagogikoa
- Motrizitate askea
- Keinuz komunikatzea umekin

Gogoan atxikitzeo, Itsasuko haurtzaindegia diru irabaziak helburu ez dituen elkarte batez kudeatua da, laguntzailez osatua, burraso izan edo ez izan. Baliatzen gira artikulu huntaz jakineratzeko haurtzaindegian laguntzeko prest den edonor ongi etorria litekeela (05 59 08 60 19)



2012-2022 : la crèche LEKUONEAN a fêté ses 10 ans le 22 juillet 2022. C'était l'occasion pour toutes les familles, le personnel et les membres bénévoles de l'association présents au fil de ces 10 ans de se retrouver autour d'un spectacle suivi d'un apéritif "taloak". Soirée festive et appréciée par petits et grands.

La crèche a une capacité d'accueil de 25 enfants. Une équipe stable, compétente, bienveillante et dynamique assure auprès de Marina Errecart, directrice depuis 2020, un accueil de qualité tant des enfants que des familles.

La crèche Lekuonean est engagée dans plusieurs démarches en lien avec son projet associatif dont :

- l'obtention du label bilingue ;
- la poursuite de l'engagement autour du label « manger bio et local » ; un jardin pédagogique ;
- la motricité libre ;
- la communication par signes avec les bébés.

Pour rappel, la crèche est gérée par une association à but non lucratif composée de bénévoles, parents ou non.

Nous profitons de cet article pour indiquer que toute personne désireuse de s'investir est la bienvenue et peut se faire connaître au 05 59 08 60 19

Ukraniako familia bat Itsasun bizi Une famille ukrainienne accueillie à Itsasu



Itsasu-n dute Chechko Lyzhenko familiakoek bizitegi berria Communal etxekeeri esker, bainan ez zaie egunik pasatzen Ukrainian utzi dituztenak deitu gabe.

Izan gira Communal anderearen etxeraino, konda diezaigun nola engaiatu den bera urrats hortan eta konpreni dezagun gerlan den herriatik ihes jin den familiaren egoera.

Communal anderea inarrosia izan zen ikusiz telebistan nolako bortizkeria jasaiten zuten Ukraniako gudu leku haietan Errusiarren jazartzeaz geroztik. Laster deliberatu zuen gaitziduratik egintzarat iragaitea, Frantzian elkartasunaz arduratzen ziren erakundeekin.

Svetlana, Igor eta Misha 2022ko agorrilaren ondarean heldu ziren Itsasurat. Errusiarren lehen bonbardaketen ondotik, ama semek ihes egin zuten Kiev ingurutik hiritik urrunago zuten ahaide batzuen etxerat. Baina gudu giroa bortiztuz zoala ikusiz, treina hartu dute Polonia-raino, autobusez jiteko Paris-en barna Hendaia-raino. Bidart-eko familia batek ditu aterbetu hiru hilabetez, Itsasu-rat jin aintzin.

Svetlana-k haurrekin lan egiten zuen bere herrian, atsem bezala. Arras ongi mintzatzen da frantsesez bere gazte denboran bizpahiru egonaldiz Frantzian ikasi baitzuen hizkuntza hau. Kanbo-ko Bon air zaharretxean eskuratu du lan postu bat mementokotz.

Misha mutiko gaztea Itsasuko eskola publikoan dabil 2022-ko buruilaz geroztik. Ez da eroso mintzo dituztelarik eskolako lagunek ezagutzen ez dituzun hizkuntzak. Ez da eroso adixkide berriak egin behar dituzularik, zure lehengo lagunak han utziak dituzularik sei hilabete lehenago jostailu guziak bezala, ahaideak eta Kiev hiriburuko etxea bezala.

Igor aita ere bere familiarekin da Itsasun. Alaska-raino ibiltzen zen itsasontzietan bere sukaldari lanbidearekin, ibilia zen bezala Europako beste lurralde batzuetan eraikuntzako lantegi batzuekin. Aita familiakoak nahi luke lehen bait lehen berriz lana aurkitu beren bizigunetik hurbilenean, eta eskatzen zaukun enpresei jakineraztea lanbide baten bila ari dela.

La famille CHECHKO / LYZHENKO, grâce à la générosité de Mme Communal, a posé ses valises à Itxassou mais il ne se passe pas de journée sans qu'ils ne contactent leurs proches restés en Ukraine.

Les journaux télévisés, sitôt l'invasion russe en Ukraine, ont renvoyé aux spectateurs que nous sommes les images impactantes et terribles de la guerre. Maider Communal a été secouée par ces images de violence et a très vite décidé de passer de l'indignation à l'action, en prenant contact avec les organisations de solidarité en France.

Nous avons donc frappé à la porte de Mme Communal pour qu'elle nous raconte son engagement et que nous comprenions mieux la situation de cette famille qui a fui la guerre dans son pays.

La famille de Svetlana, Igor et Misha n'est arrivée à Itxassou qu'à la fin du mois d'août 2022. Au début des bombardements russes sur l'Ukraine, la maman et le jeune garçon ont d'abord fui la banlieue de Kiev où ils habitaient pour se réfugier chez des proches dans la campagne ukrainienne. L'intensification des combats les a incités très vite à prendre un train pour la Pologne, avant de rejoindre Paris et Hendaye par autobus. Ils ont été hébergés dans une famille de Bidart pendant trois mois, avant de venir à Itxassou.

La maman **Svetlana** occupait un poste d'ATSEM dans son pays d'origine. Elle communique bien en français qu'elle a appris de manière autodidacte. Svetlana, adolescente, a plusieurs années durant séjourné en France par le biais de l'association "Les enfants de Tchernobyl". Elle occupe actuellement un poste de travail à l'EHPAD Bon Air de Cambo.

Le fils **Misha** a rejoint l'école publique d'Itxassou à la rentrée de septembre 2022. Pas évident d'arriver au milieu d'une classe qui pratique des langues dont on a tout à apprendre, et de se refaire des ami(e)s...Quelle rupture pour un enfant dont le quotidien, six mois avant, était fait de sa famille, de ses jouets, de ses amis, de sa rue à Kiev !

Igor le papa a aussi rejoint la petite famille à Itxassou. Son métier de cuisinier l'avait déjà emmené sur des bateaux jusqu'en Alaska, ou encore sa recherche de travail l'avait conduit sur des chantiers du bâtiment à l'étranger. Ce père de famille voudrait désormais rester auprès des siens et travailler au plus vite à proximité de leur nouveau lieu de vie. Il nous demande de faire passer le message aux entreprises locales en recherche de main d'œuvre.

hurbilez hurbil ibiltzen laguntzeko



2022ko maiatzaz geroztik, herriko etxeko CCAS-ak antolatzen du beharraren arabera garraio zerbitzu bat, heltzeko Itsasu, kanbo edo Ezpeletako herrietarat.

Mementoz, 25 itsasuarrek eman dute izena zerbitzuaz baliatzeko eta badira 8 gidari bolondres beren denboratik eskaintzeko Herriko Etxeak biltzen dituen eskakizunei. Gaurregun 10 herritarrek baliatu dute edo baliatzen dute jarraituki garraio mota hori, medikurat joateko, ile apaindegirat edo erosketa egiterat.

Iniziatiba baikorra CCAS-ak jarraitu eta garatu nahi duena.

Kontaktuan sar zaitezke CCAS-arekin taxi solidarioa deitzeko, aski baita Herriko Etxea abisatzea zenbaki huntarat : 05 59 29 75 36

Bada bestalde gogoeta bat ikusteko nola laguntzen ahal litezkeen herritar batzu oinez beren hitzordu lekuetaraino, herri erditik hurbil bizi izanik nahitaez.

pour permettre de se déplacer en proximité

Depuis le mois de mai 2022, le CCAS propose un service de transport solidaire à la demande pour se rendre sur les communes d'Itsassou, Cambo-les-Bains ou Espelette.

A ce jour 25 Itsasuar se sont inscrits et 8 bénévoles s'organisent et répondent aux demandes que reçoit la Mairie.

Actuellement 10 personnes ont déjà utilisé et utilisent régulièrement ce mode de transport pour se rendre à un rendez-vous médical, chez le coiffeur, faire des courses.

Une initiative positive que le CCAS souhaite poursuivre et développer. Vous pouvez contacter le CCAS pour l'utilisation du taxi solidaire en appelant la mairie au 05 59 29 75 36.

Actuellement une réflexion est menée sur la possibilité d'accompagner à pied des personnes qui souhaiteraient se rendre en marchant sur leurs lieux de rendez-vous dans le village.



repas du CCAS

Aldizkari hau banatzen dugun tenore honetan, CCAS-ko adinetakoen bazkaria eskaini berria izan da. Agian oren goxo batzu iragan dituzuelakoan herriko lagunekin !

A l'heure où vous recevez cette 7ème édition du bulletin municipal, le repas du CCAS du 5 novembre est tout juste digéré. Espérons que ce déjeuner aura permis de renforcer les liens entre Itsasuar !

gazteen aisialdiak / activités de loisirs jeunes

Bakantza denboran, CCAS-ak kolegioko gazteentzat proposatzen ditu ausatzeko ekimenak, diploma egokiez jauntziak diren helduez lagunduak eta kudeatuak.

Molde hortan proposatuak izan dira ondoko ekimen hauek : sukalde tailerrak, perkusio eta dantzak, abentura parkeak, rafting-a, kanoe, kantu eta gorputz ariketak, jauntzi eta maska jostea, zaldiekilako ekitaldiak, udako mendi ibilaldiak.

Zorigaitzez, CCAS-a behartua izan da ekimen zenbaiten ezeztatzerat, gazteen izen emaiterik ez zen aldi bakar batzuetan.

CCAS-ko gazte batzordea ari da gogoetan jakiteko nola eta zerekin interesatu autonomia gutizia hazten ari zaien gazte horik, nekez hurbiltzen baitira ausaleku antolatu klasikoetarik.

Ikerketa bat abiatua izanen da jakiteko nola bizi diren gure gazteak herrian, nola antolatzen diren denbora libreetan, zoin diren interesatzen eta arranguratzten dituzten gaiak, nola bizi duten beren lekua herriko bizian.

Emaitza horiekin CCAS-ko arduradunek hobeki egokituko lituzkete gazteei eginen dituzten harrera eta animazione proposamenak.

Durant les vacances scolaires, le CCAS propose aux collégiens de participer à des activités de loisirs encadrées par des professionnels et accompagnées par des animateurs titulaires du BAFA.

C'est ainsi qu'ont pu être programmées les activités suivantes : ateliers culinaires, danses et percussions, parc aventure, rafting, canoë, chants et expression corporelle, création de masques et de jupes, initiation à l'équitation, séjour randonnée été.

Cependant, le CCAS a été contraint d'annuler à plusieurs reprises des sorties faute d'un nombre suffisant d'inscrits.

La commission « Jeunesse » du CCAS s'interroge actuellement sur le sujet de « comment accueillir ces adolescents dont l'autonomie naissante tend à les éloigner des accueils de loisirs classiques ? ».

Une étude sera lancée pour connaître comment nos jeunes vivent dans le village, comment ils occupent leur temps libre, quels sont les sujets qui les intéressent ou les préoccupent, quels sont leurs ressentis par rapport à leur place dans le village.

Ces éléments permettront au CCAS d'affiner les propositions d'animations et d'accueil des jeunes.

eskertuak langile lagunen eta herriko etxearen ganik

Urriaren 18-an, haizeak epel zirelarik kanpoan, udazkeneko giro goxoa zen herriko etxeko barnealdean, herriko langile eta hautetsiak elkartu direlarik Emmanuelle eta Brigitte langile ibilbideak ospatzeko.

Brigitte Bordaneil-ek erretreta hartu du, hogoi urte egonik Itsasuko herriko etxeko langile. Hainbeste urtez lholdiko itsasuar honek zintzoki, goxoki eta azantza gutirekin lagundu ditu zenbait herriko haur belaunaldi, jantegian, haurtzaindegian ala eskolako jostalekuan.

Brigitte-n aintzineko lanbidea medikuntzaren munduan balin bazen, utzia zuen langiro isil eta azeptizatu hori haur irri karkailaz, negar zotinez, kalapitaz, jostetaz, haurren hitz eta zauriz betea zen ingurugiro batentzat. Brigitte izan da bere lanean beti entzuteko prest, beti laguntzeko prest. Aitortu dauku atxiki dituela bere lan denboratik hainbeste oroitzapen eta anekdota, baita ez dituela oraino galdu lan denborako mania guziak goiz erditan erlojuari usu begiraturaz.

Emmanuelle Erhlacher-ek ere lagundu ditu hiru ikasturtez eskoletako haurrak, gehienbat jantegian. Parise aldetik jinik Haltsu alderat, erakutsi du Emmanuelle-k baduela lekuan lekuko giro geografiko, kultur eta profesional ezberdinei egokitzeko ahala. Isila, efikaza eta malgua izan da gure herriko lanetan Emmanuelle, nahikeria ederra erakutsi duela frangotan Udalekuko bazkariaren banatzen laguntzeko bakantza denboran jiten zelarik bezala.

Arrabots handirik gabe utzi zuen jantegiko lanpostua Emmanuelle-k, lanordu gehiagoko lanbide baten eskez baitzabilan aspaldian.

Brigitte eta Emmanuelle goretsiak eta eskertuak izan dira Itsasuko herriarentzat eskaini duten lan ibilbide guziarentzat.



chaleureusement remerciées par les collègues et la mairie

Le 18 octobre dernier, alors que la météo nous réservait une chaude soirée automnale, c'est dans une chaleureuse ambiance que personnels et élus municipaux se sont retrouvés pour honorer Brigitte et Emmanuelle.

Brigitte Bordaneil, après 20 ans de service, a pris sa retraite. Autant d'années scolaires au cours desquelles cette itsasuar originaire d'Iholdy aura consciencieusement, gentiment et discrètement accompagné quelques générations d'écoliers à la cantine, à la garderie scolaire et dans la cour de récréation de l'école publique.

Alors que sa précédente expérience professionnelle s'était déroulée dans le secrétariat médical, elle a quitté ce milieu calme et quelque peu aseptisé pour un environnement fait de rires, de pleurs, de chahut, de jeux, de mots et maux d'enfants. Brigitte a accompli ses missions avec disponibilité et bienveillance ; elle nous dira retenir multitudes de souvenirs et anecdotes de même qu'une organisation quotidienne encore calquée en ces 1ers jours de retraite sur le rythme scolaire.

Emmanuelle Erhlacher a elle aussi accompagné, sur 3 années scolaires, les élèves de nos écoles communales à la cantine. En provenance de la région parisienne, elle a fait preuve de grosses qualités d'adaptation à ses nouveaux environnements géographique, culturel et professionnel. Discrétion, efficacité, flexibilité qualifient cet agent qui s'est également porté volontaire au démarrage du centre aéré Udaleku pour faciliter le service du midi et assurer le ménage des locaux.

Emmanuelle, en recherche d'un emploi à temps plein, a quitté discrètement son service en juin 2022.

Toutes deux ont été chaleureusement remerciées pour leur parcours au service de la commune.



Chers Itsasuar.

Vers la mi-juillet, vous avez toutes et tous découvert l'instauration de plusieurs sens uniques : Karrika nagusia, Urzumuko bidea, Elizako bidea et Larrondoko bidea.

Certains d'entre eux sont repassés à double sens après les fêtes.

La majorité argumente cette décision en invoquant que ces modifications étaient indiquées sur le bulletin concernant le projet de Plan Local d'Urbanisme (projet que seuls les 4 élus de notre groupe ont désapprouvé) et reprises dans le bulletin de Juillet. Mais ce PLU n'est à ce jour qu'un projet : l'enquête publique n'a pas encore eu lieu et son approbation définitive n'interviendra qu'en début 2023. En fait, des mesures ont été mises en place avant la fin d'une procédure non encore validée.

A l'inesthétique se pose la réelle efficacité de ces aménagements, notamment en matière de sécurité.

Et tout cela s'est fait sans concertation : pas de débat spécifique au sein du conseil municipal (du moins avec notre groupe) et aucune concertation avec les riverains impactés directement par ces modifications.

Pourtant, si l'on reprend la profession de foi de la campagne électorale 2020 du groupe Herriari, page 2 du programme :

« Les projets impactant durablement le paysage et l'environnement de notre village, bien commun à tous les Itsasuar, seront décidés avec le consentement de la population. La mairie ou des itsasuar proposent un projet. Une fois le projet défini, il est soumis au vote des citoyen.ne.s . Dans tous les cas, ce sont les habitants d'Itsasu qui décident » .

Encore une fois, leur slogan de « démocratie participative » n'est aucunement respecté dans les faits.

Pour info, l'élue en charge de la Démocratie participative avait démissionnée de son poste de déléguée fin 2021.

Le désaccord massif de la population s'est exprimé par l'intermédiaire d'une pétition qui a recueilli plus de 400 signatures, pétition demandant le retrait de l'arrêté municipal instaurant l'ensemble de ces mesures. Nous espérons vivement que Monsieur le Maire prendra les dispositions en ce sens.

Bonne fin d'année à vous.

Les élu.e.s d'« Elgarrekin segi aintzina » (D. Machicote-Poeydessus, M.H Iturburua, J.P Iturburua, X. Belleau)

Itsasuar maiteak.

Ustail erdi honetan, denek ikuzi duzue norabide bakarreko hainbat bide ezartzen: Karrika nagusia, Urzumuko bidea, Elizako bidea eta Larrondoko bidea.

Herriko besten ondotik, horien arteko batzuk berriz bi norabidetan ezarriak izan dire.

Gehiengoak erabaki hori argudiatzen du aldaketa horiek Tokiko Hirigintza Planaren buruzko aldizkarian agertu zirela (gure taldeko 4 hautetsiek baizik gaitzetsi ginuen proiektua) bai eta uztaillekoan ere. Baina gaur egun PLU hau proiektu bat baizik ez da: herri galdeketa ez da oraindik egin eta bere behin betiko onarpena 2023. urtearen hastapenean izango da . Egia erran, neurriak ezarri dituzte oraindik balioztatu gabeko prozedura aintzin.

Itxuragabeari sortzen zaio antolamendu horien egiazko eraginkortasuna, batez ere segurtasunari dagokionez.

Eta hori guztia kontsultarik gabe egin dira: hautetzien artean eztabaida zehatzik gabe (gure taldearekin behintzat) eta aldaketa hauek zuzenean eragindako bizilagunekin kontsultarik gabe.

Hala ere, Herriari taldearen 2020ko hauteskunde kanpainako fede lanbidea hartzen badugu, programaren 2arren. orrialdean:

“Itsasuko bazterrak eta ingurumena betiko itxuraldatuko dituzten proiektuak herritarren baieztapenarekin deliberatuko dira, hauek itsasuar orenen ondasun direlako. Herriko etxeak edo itsasuar batzuek proposatzen dute proiektu bat. Proiektu hori zehaztu ondoan, itsasuarrek bozkatuko dute. Kasu guzietan, biztanleek dute erabakiko”.

Beste behin ere, praktikan ez dute inolaz ere errespetatzen “demokrazia parte-hartzailearen” leloa.

Informazio gisa, demokrazia parte-hartzailearen ardura zuen hautetsiak, bere ordezkari karguari uko egin zuen 2021 urte bukaeran.

Herritarren desadostasun masiboa 400 sinadura baino gehiagoko eskaera batek bildu ditu, neurri horiek guziak ezartzen dituen herriko etxeko dekretua kentzeko galde eginez. Zinez nahi dugu hauzapezak norabide horretan beharrezko urratsak ematea.

Urte bukatze on zueri.

“Elgarrekin segi aintzina” hautetsiak (D. Machicote-Poeydessus, M.H Iturburua, J.P Iturburua, X. Belleau)

egiak bere bidea

Jasangaitza bilakatu da Herriko Etxeko gehiengoko hautetsientzat ikustea herri aldizkari bakotx akusapen eta laido zerrenda luzatzen dela Elgarrekin Segi Aintzina ko ordezkarien ganik, kontseiluko edo batzordetako bilkuretan ez dutelarik bakan baizik ohar ezkorrik edo proposamen baikorrik adierazi.

Lerro hauen asmoa ez da idatzizko eztabaidaren haztea, baina gehiago egiaren ozkan berritz ezartzea azken aldizkaritan agertu dituzten akusapen zenbait.

Herri Erditik hurbilenean eraikigarri ekarriak litezkeen 3 ektara lurrak.

Nola ez oroitarazi orain arte ere eraikigarri ekarriak zirela 10 ektarako eremu baten zatia direla 3 ektara horiek, hots 2007ko PLUan eraikigarri ezarri zituztela oposizioeko hautetsi hauen gehiengoak berak. Gogoan ote dute 10ektara horietarik 7 berritz laborantzako lur klasatuak direla 2022ko uztailean CAPBen bozkatua izan den PLUaren egitasmoan, eta beste 30 bat ektarak zorte bera jasaiten dutela Itsasun eraikigarritik laborantzaren klasamendurat itzuliz ?

Maltzurragoa oraino hain segur Herriko Etxeko gehiengoko hautetsi zenbaiti luzatu akusapena, baizik eta beren edo beren lagunen interes pribatuak zerbitzatu dituztela bereziki laborantza eraikin zenbaiti bizitegi bihurtzeko baimenak ezarri.

Gai horik urbanismoari dedikatua den batzordean landuak izan dira, eta Elgarrekin Segi Aintzina-k ez du nehoiz ohar berezirik egin onartuak ziren eraikinen bizitegi bihurtzeko proposamenetaz, ez duelarik ere sustengatu zuzenkontra baztertua ikusten zuen sail hortako dozier bakar baten alde.

Eta gero bapatean agertzen dira gure hautetsiak baliatzaile bezala akusatzen, demokraziaren eta laborantza lurraren ikurrak haga puntan daramaztela.

Balitezke hari bereko beste asko gauza zuzentzeko. Sinesten dugu oraino osatuko dugula noizbait herriko biltzar bat, ikuspegi ezberdinetako hautetsiek argi eta garbi adieraziko baitituzte beren ikuspegi ezberdinak denon aintzinean eta bilkura gunetan.

Herriari Hautetsiak
(M. Hiribarren, N. Etxamendi, M. Setoain, M. Ospital, M. Parachu, E. Harispourou, L. Croc, G.Hiribarren, M. Etchemendy, P. Iriquin, M. Caussade, J. Teillierie, C. Dagorret, J. Irungaray)

Il est devenu insupportable aux élus de la majorité municipale de découvrir à chaque nouvelle livraison de bulletin municipal une volée d'affirmations accusatrices ou calomnieuses de la part de Elgarrekin Segi Aintzina, alors qu'ils n'ont exprimé le plus souvent aucune réserve ni proposition constructive lors des travaux de commissions ou de Conseil Municipal.

L'intention de ces lignes n'est pas de nourrir les polémiques mais bien d'apporter quelques rectificatifs aux contre-vérités qui ont émaillé les dernières chroniques de cette opposition.

Les 3 hectares de terres qui seraient dédiés à de l'habitat en toute proximité du centre bourg.

Comment ne pas rappeler que ces terres sont issues d'un foncier d'une superficie de 10 hectares classé intégralement en zone constructible au PLU de 2007 avec qui plus est un principe d'aménagement (voies-terrains nus à construire-maisons en bandellements collectifs).

https://itxassou.fr/wpcontent/uploads/2010/12/Les_orientations_damenagement_PLU_2007.pdf.

Un projet élaboré avec l'implication de certains de ces élus qui rejettent aujourd'hui le projet de PLU arrêté par la CAPB

Ils oublient par ailleurs de signaler que 7 de ces 10 hectares recouvriront bientôt un classement agricole, et que le même sort est réservé à une trentaine d'hectares de foncier urbanisable qui retourne au statut agricole.

Plus insidieuse encore sans doute l'accusation renvoyée aux élus de la majorité municipale de servir leurs propres intérêts à l'heure d'accorder des autorisations de changement de destination concernant la réhabilitation de bâtiments agricoles. Les débats ont eu lieu en commission d'urbanisme, et les élus de Elgarrekin Segi Aintzina n'ont jamais manifesté de contestation sur les propositions retenues, n'ont pas davantage appuyé un quelconque dossier qui leur paraissait mériter pouvoir bénéficier des critères d'attribution. Et puis soudain vous accusent de profiteurs tout en brandissant les bannières de démocrates ou de défenseurs de la terre agricole !

D'autres contre-vérités auraient mérité de pouvoir ici être relevées.

Nous ne désespérons pas de constituer une assemblée d'élus municipaux qui portent des projets différents et qui les défendent franchement, et publiquement, en séance.

Les élu.e.s d'Herriari
(M. Hiribarren, N. Etxamendi, M. Setoain, M. Ospital, M. Parachu, E. Harispourou, L. Croc, G.Hiribarren, M. Etchemendy, P. Iriquin, M. Caussade, J. Teillierie, C. Dagorret, J. Irungaray)

inventaire de la faune et de la flore sur le massif du Mondarrain et de l'Artzamendi : Participez !!

Vous êtes curieux de nature, et souhaitez améliorer vos connaissances tout en transmettant vos observations d'espèces ? C'est très simple, franchissez le pas en contribuant à l'inventaire participatif proposé par le CEN Nouvelle-Aquitaine.

Reptiles, batraciens, insectes, oiseaux, mammifères (non domestiques), plantes avec ou sans fleurs, vos contributions seront utiles pour améliorer la connaissance de la biodiversité.

De nombreuses espèces sont protégées, toutes aspirent à la tranquillité, ne les manipulez pas. Une photo correcte pour valider l'observation, et c'est tout !

COMMENT PARTAGER MES OBSERVATIONS ?

Pour transmettre vos observations, scannez ce QR code (pour accéder à l'application mobile) ou connectez-vous sur iNaturalist : <https://www.inaturalist.org/>

(C'est une plateforme gratuite et grand public de partage de données naturalistes).

Sur iNaturalist, vous retrouverez un espace dédié au projet « Massif du Mondarrain et de l'Artzamendi » pour vous permettre de partager vos observations en lien direct avec l'inventaire du site. Si vous avez des questions, n'hésitez pas à nous contacter : p.cornu@cen-na.org



panpako belar gaitza

Hego Amerikatik sartua da XVIII garren mendean Frantziarar edergailu gisa. Gure bazter guzietan barreiatzen ari da, oraino preziatua delarik edergailu gisa. Bizkitartean, kaltegarria da osagarriarentzat eta ekosistema askorentzat.

Leku askotan barreiatzen da panpako belar gaitz hori : hezegunetan, pentzetan, oihan azpitan eta bide bazterretaraino. Bioaniztasuna murrizten du beren inguruan, alhatzeko ekarpenik ez du eta arriskuak emendatzen ditu surik lot baledi. Alergiak sortzen ditu jendetan.....

Etxe itzulian panpa landare horietarik balin baduzue, errotik atera lehen bait lehen, eta ezinbestean arrasetik motz. Eta ez duda auzoei aipatzeaz.

Mundarrain eta Artzamendiko landare eta bitxoeriaren ezagutza elkarlanean

Akitaniako Berriko CEN egiturak antolatzen du gure mendietako bitxoeria eta landareriaren ezagutzeko parada bat errex. Ikusten eta hurbiltzen ahal diren apoki, sugandak, insekto, txori, mamifera, landare loredu edo gabe, zuen ekarpenek hobetzen ahal dute bioaniztasunaren ezagutza.

nola partekatu bakotxaren oharrak eta ikerketak?

aski da skanatzeari hementxe bazterrean agertzen den QR code hori mogikorraren aplikapenerat heltzeko. Edo bestela konektatu behar da Naturalist plataformarekin. (<https://www.inaturalist.org/>)

inaturalist internet gune hortan bada eremu berezi bat dedikatua Mundarrain eta Artzamendi mendi mazeleri. Nekekeri kausituko bazinute, harremanetan sar zaitezke p.cornu@cen-na.org

L'herbe de la Pampa : une invasive venue des jardins, dangereuse pour la santé et l'environnement

Originare d'Amérique du Sud et introduite en France au XVIII^{ème} siècle pour l'aménagement paysager, l'Herbe de la Pampa (*Cortaderia selloana*) a peu à peu envahi nos paysages. Encore très prisée pour ses qualités ornementales, elle représente pourtant une menace importante pour nos écosystèmes et notre santé.

En effet, cette grande graminée est une Espèce Exotique Envahissante pour sa capacité à coloniser les espaces naturels essentiels comme les zones humides, les prairies, voire les sous-bois. Elle s'observe aussi assez facilement en bord de route. En colonisant ces milieux, elle réduit la biodiversité, diminue la qualité fourragère et augmente les risques d'incendie tout en perturbant les paysages naturels.

Cette espèce a de grandes capacités de reproduction et de dispersion, chaque pied femelle adulte produit des millions de graines, qui peuvent être dispersées à des kilomètres par le vent. Les pieds mâles sont eux capables de produire des dizaines de millions de grains de pollen particulièrement allergènes pour les allergiques aux graminées, de plus en plus nombreux dans la population. Si vous en possédez, arrachez-les si vous le pouvez ou coupez les inflorescences avant qu'elles ne répandent graines et pollen, et sensibilisez autour de vous à la nécessité d'intervenir.



EGUTEGIA

AGENDA

9 novembre

Atelier gratuit sur les produits toxiques à la maison, comment s'en protéger ?

Inscriptions au 05 59 37 47 20
9h/12h30 - *Organisé par le CPIE*

13 novembre

Brik A Brac - Atharri - 9h/17h
Organisé par Les Vieux Machins

18 novembre

Euskaraldia
« Haize dator » bertsu saioa
19h à Indianonenea

19 novembre

Euskaraldia - 16h tour en vélo dans Itsasu

20 novembre

Euskaraldia - Partie de pasaka au trinquet Balaki et apéritif

20 novembre

Vide poussette - Atharri - 9h/17h
Organisé par les parents d'élèves de San Josep eskola

25 novembre

Euskaraldia - Atelier pintxo à Atharri

26 novembre

Euskaraldia - Sanoki étage - 18h
Cinéma pour enfants

26 novembre

Spectacle musiques chansons
Sanoki - 21h
Organisé par Accords

27 novembre

Vide grenier - Atharri - 9h/17h
Organisé par les parents d'élèves de l'école publique

27 novembre

Euskaraldia - Sortie randonnées et pique nique

2 décembre

Euskaraldia - **Kontzertua « Isabe »**
Indianoenean

3 décembre

Euskaraldia eguna
10h Café potéo chants

4 décembre

Eguberriko merkatua
Marché de Noël
Sanoki - 10h/16h
Organisé par l'ikastola Arrokaragai

L'association ACCORDS propose le samedi 26 novembre à 21h salle Sanoki - Itxassou

Musique /chansons : « Melle LAURE CHANSONS BIPOLAIRES... ET ALORS ! » Spectacle en français

ACCORDS elkarteak antolatzen du azaroaren 26an, 21etan sanoki gelan - Itsasun



Laure andereñoarentzat, bere polobitasunarekin lan egitea ez da abesti ilun eta tragikoetan aritzea. Nor bakoitzaren egunerokoan eta historian argi eta garbiki murgiltzea da, ordea.

Bizitza, dituen irri eta dramekin, indarkeriarekin eta zorionekin, egunero abestea da. Haren kantagintza eta poesiagintza, haren ahotsa, energia eta itxaropen iturri ederrak dira. Hitz bakoitza, keinu bakoitza, zirrarez blai dira; hamaika kolore ditu bere paletan.

Bruno Josué-ren erritmo eta bokalizazioek oiartzun sensible baten ñabardurak ematen dizkiete Laure-ren melodiei.

Kontzertuaren ondoren saio ondokoa izanen da, ikus-entzuleekin polobitasunaz eta Laure-ren arte eta psikiatria ibilbideaz eman lekukoaz mintzatzeko.

Itsasuko herriko etxearen partaidetzarekin

10€ itsasurrentzat

12€ (12 urtez gorakoentzat). iraupena : 75 minuta.

Pour Mademoiselle Laure, travailler avec sa bipolarité n'est pas synonyme de chansons sombres et tragiques. C'est une plongée limpide et lucide dans le quotidien et l'histoire de chacun. C'est chanter chaque jour la vie avec ses rires et ses drames, sa violence et ses bonheurs. Son chant est sa poésie, sa voix une formidable source d'énergie et d'espoir. Chaque mot, chaque geste est teinté d'émotion et les couleurs de sa palette sont infinies.

Les rythmes de Bruno Josué et ses vocalises donnent aux mélodies de Laure les nuances d'un écho sensible. Emmanuelle Bacquet au violoncelle sera peut être en accompagnement.

Le concert sera suivi d'un bord de scène, échanges et dialogue éventuel avec le public autour de la bipolarité et du témoignage de Laure sur son parcours artistique et psychiatrique.

10€ pour les itsasuar

12€ à partir de 12 ans durée : 75 minutes.

Iekukotasuna / témoignage

Xan Mihura

Irailaren 11an itsasuar bat omendu dute Ihilepon ; Comète sarearen lagunek gerlan arriskuan zirenak muga pasatzen lagundu zituztenen omenez ezarri harria inauguratu baitute.

Omenduen artean Xan Mihura itsasuarra; 1895an Piarresen bordan sortua, gazterik Gerla Handian ez parte hartzeko muga pasatu zuena. II. Gerlan, Esteben bordatik hurbil den Jauregiko bordan (Nafarroa) bizi zen. Gune enblematikoak horiek! Naziek kontrolatzen zuten muga pasatzea ez baitzen afera erraza!



Crédit photo M.Urmeneta

Comète sarea Europako erresistentzia sare inportantea izan zen. Misioetan erori Britainiar pilotuak errekuuperatzea eta Londreseraino helaraztea zuen helburu (878 pilotu salbatu zituzten). Hasieran Baionatik Gipuzkoaranzko bidea erabiltzen zuten (Bidasoa zeharkatuz). Gestaporen sarekada baten ondotik hasi ziren hemendik pasatzen. Baionatik Ezpeletaraino oinez eta txirindolaz heltzen ziren pilotuak. Handik, Ezpeletar batzuek Jauriko bordaraino laguntzen zituzten; Zuharretako lepotik eta Bizkarluzearen gibeletik pasatuz, Esteben borda alemaniarrek okupatzen baitzuten.

Hortik, Mihurak Amaiurrera edo Erratzura buruz eramaten zituen. Britainiarrak ez dira salbatu ziren bakarrak!

Eta Xan Mihura ez zen mugalari bakarra! Ihilepon hunkigarri bezain sinboliko izan zen Ingalaterratik, bere aita salbatu zuen gizonaren familia ezagutzera jina zen Tom Convington eta Joxefina, Xanen alabaren arteko besarkada ikustea!

Le 11 septembre dernier, un hommage a été rendu à Xan Mihura d'Itsasu . En effet, une pierre a été déposée et inaugurée au col Ihilepo afin de rendre hommage aux “passeurs” dont Xan Mihura faisait parti. Pendant la guerre 39-45, ils se sont évertués à aider les membres du réseau Comète à passer la frontière.

Qui était Xan Mihura? Il est né en 1895 dans la ferme Piarresen Borda. Très jeune, il passera la frontière pour ne pas faire la Grande Guerre et se réfugiera en Navarre. Pendant la seconde guerre il vivait à quelques pas de la ferme Esteben Borda, côté navarrais dans la ferme Jauregiko Borda. Lieux emblématiques! Les nazis contrôlaient la frontière et passer sur le sol navarrais n'était pas une mince affaire!

Le réseau Comète était un des réseaux de résistants parmi les plus importants d'Europe. Une de leur mission consistait à récupérer des pilotes anglais et leur faire passer la frontière afin qu'ils regagnent l'Angleterre. 878 pilotes ont pu être sauvés. Bien qu'au début de la guerre les pilotes passaient de Bayonne vers le Gipuzkoa en traversant la Bidassoa, suite à des représailles allemandes, c'est par Espelette qu'ils seront acheminés. Arrivés en vélo depuis Bayonne, c'est par la montagne que des Ezpeletar les accompagnent jusqu'à la ferme Jauregiko Borda.

La ferme Esteben Borda étant occupée par les allemands, pour rejoindre le côté navarrais de la frontière, le passage se faisait par le col Zuharreta et par derrière Bizkar Luze. Ensuite depuis Jauregiko Borda Xan Mihura acheminait les aviateurs vers Amaiur et Erratzu afin qu'ils poursuivent leur route. Des aviateurs et bien d'autres civils ont pu être sauvés!

Xan Mihura n'était pas le seul “passeur”, mais ce 11 septembre l'étreinte entre un fils d'aviateur anglais sauvé par Xan et la fille de celui-ci restera un moment aussi symbolique qu'émouvant.

